

Zertan den Nafarroa

2014

Espainiako Unitatea

- Nafarroak hazkundera berreskuratu du 2014an eta azkartu egingo du 2015ean
- Barne eskariaren pixkanakako dinamizazioa, kanpo-sektorearen laguntzarekin, eskualdearen hazkudearen bultzatzaile
- Erreformen bultzadari eustea giltzarria izango da berrindartze sakon, eramangarri eta iraunkorrerako

Aurkibidea

1	Editoriala	3
2	Berrindartze globala, motela eta beheranzko arriskuekin	5
3	Hazkunde-aurreikuspenak: Nafarroa	8
	1. errekoadroa. Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta Nafarroan, 2014ko 3. hiruhilekoan: hirugarren hiruhilekoan eten egin da ekonomiaren suspertzea, baina laugarrenean itzul daiteke	30
	2. errekoadroa. Esportazioen dibertsifikazioa, eskualdeen hazkundera azaltzeko faktore	32
	3. errekoadroa. Nolako sentsibilitatea du Nafarroak europar zikloaren aurrean? Azterketa bat, BBVA-RVAR ereduaren oinarrituta	35
4	Autonomia-erkidegoetako finantzak 2013an eta 2003tik 2013ra	40
5	Taulak	47

Itxiera data: 2014ko azaroak 6

1 Editoriala

Jarduera ekonomikoaren bilakaera esperotakoa da eta, duela urtebete pasatxotik, indartzen ari da Nafarroarako hazkunde eta enplegu-sorrerari buruzko aurreikuspen sendoagoen testuingurua. Azken adierazleek horixe berresten dute, hala nola Nafarroako MICA-BBVA ereduak edota Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak. Horrez gain, susperraldi horrekin batera, enplegua sortzen ari da, 2013. urte amaieran hasitako bideari jarraituz, nahiz eta oro har Espainian baino motelxeago egin duen aurrera. Aurrera begira, hurrengo hilabeteetan ere suspertze hori sendotzea espero dugu, Espainian ere halaxe gertatuko baita. Hala, aurreikuspen honi dagokion ikusmugan, probabilitate gehien duen agertokiak Nafarroako ekonomiaren hazkunde iraunkorra adierazten du (% 1,4 2014an, eta % 2,2 2015ean).

Hainbat faktorek babesten dute eskualdeko agertoki hori. Lehenik, **mundu mailako hazkundeak sendo utsiko dio**, 2015rako EDBrako aurreikusitako hazkundera espero zena baino txikiagoa izango den arren eta zenbait zalantza geopolitiko izan arren. Ekonomia horietan eta Espainian jardueraren suspertze horrek aukera eman behar lioke Nafarroako kanpo-sektoreari dinamismoa berreskuratzeko, neurri batean, sektoreen ikuspegitik eta geografikoki dibertsifikatzeko egindako bideari esker. Dibertsifikazio-prozesu horretan jarraitzea eta produktibitatean eta lehiakortasunean irabaziak lortzea dira, hain zuzen, Nafarroak epe erdi eta luzera aurrez aurre dituen erronka nagusiak.

Bigarrenik, **ziurtasun handiagoko egoerak barne-ekariak hazkunderaren gain duen zama nabarmenki murriztea ahalbidetu du azken urtean.** Alde batetik, barne-debaluazioaren prozesuari esker, enpresek gehiago aurreztu ahal izan dute, eta inbertsioa pixkana areagotzen hastea dakar horrek. Bestetik, kontsumo pribatuak dinamismoa eta konfiantza berreskuratu ditu azken hiru hilabeteetan, alde batetik, oinarrizkoen jokaera hobearen ondorioz (enplegua eta higiezinaren aberastasuna egonkortzea, eta finantza-aberastasuna handitzea), eta, bestetik, behin-behineko zerga-pizgarri batzuen ondorioz (PIVE plana, adibidez). Horrez gain, 2013ko defizit-helburua ez bete arren, Nafarroak 2014an bete dezake helburu hori, eta, horri esker, **Nafarroako gobernuak 2015ean egin beharreko zerga-ahalegina murriztu egingo da; gainera, zerga-murrizketa bat onartzea lor dezake.** Dena den, zerga-politikaren tonua neutrala edo apur bat hedakorra izan daiteke, gaur egun Nafarroan proposatu den zerga-erreforma ikusita.

Hirugarrenik eta Europako hazkunde-perspektiba txikiagoei erantzuna emateko, **Europako Banku Zentralak moneta-politika oldarkorragoa abiarazi du**, eta kreditua hedatzeko eta pizteko neurriak hartzen ditu barnean politika horrek. Familientzat eta enpresentzat suspertgarri gerta daitezke neurri horiek, Europako zatiketaren kariatz beren lehiakideek baino finantziario-diferentzial handiagoak jasan behar izan baitituzte. Horrez gain, EBZren neurriek depreziatio bat ekarri dute euroaren eta dolarraren ganbio-tasan, eta horrek EBtik kanpoko helmugetara zuzentzen diren esportazioak suspertzen lagunduko du. Horrek hurrengo hiru hilabeteetan zenbait sektorek eta eragilek izango duten gainzorgabetze-prozesua eragotziko ez badu ere, kreditu-eskaria errazago suspertuko da, Nafarroan desorekak txikiagoak izan direnez.

Beraz, **eskualdeko kanpo-sektoreak gorantz egiten jarraituko duela espero da**, EBZk abiarazitako politiken ondorioz ustez **hurrengo urtean euroak dolarraren aurrean izango duen depreziazioak bultzatuta**, 2015. urtean, batez beste, balio-galera % 10era iristea espero baita. Kanpo-sektoreak hazkundera bultzatzen jarraitzeko duen ahalmenari dagokionez, gaiarekin lotutako bi errekoadro interesgarri txertatu dira agerkari honetan. Lehenengoak, Nafarroako esportazio-sektoreak produktuei nahiz helmugei dagokienez dibertsifikatzeko egindako ahalegina islatzen du. Oro har, dibertsifikazioaren handitzeak azaltzen du krisi garaian gertatutako esportazioen % 76ko hazkundera, eta, beraz, hazkundera bultzatzeko, funtsezkoa izango da internazionalizaziorako ahalegin horri eustea. Bigarren errekoadroak Nafarroako ekonomiak Europako zikloarekiko duen sentsibilitatea aztertzen du eta, Europako BPGren hazkunde txikiagoak konpentsa dezakeen arren, euroak dolarraren aurrean jasan dezakeen depreziazioak hurrengo

lau hiruhilekoetan Nafarroako BPGri 5 hamarren arteko ekarpena egin diezaiokeela ondorioztatzeko aukera ematen du.

Hala ere, **badira oraindik zenbait arrisku-faktore, suspertze hori motel dezaketenak**. Europako zenbait ekonomiaren dinamismo faltaren iraupena eta prezioak murrizteko prozesuarekiko elkarreragina azpimarratu behar dira. Politika berrien faltak –bereziki moneta-politikan– eta ekonomia nazionalaren eta Nafarroako ekonomiaren funtzionamendua hobetuko duten erreforma berriak abiarazteko borondate faltak ahultasun-egoera ekarriko lukete. Halaber, baliteke EBZren azken neurriak ez izatea hasieran espero bezain eraginkorrak kreditua bultzatzeko orduan, eta ingurune politikoari buruzko zalantzak areagotu egin litezke hurrengo hilabeteetan; horrek guztiak hainbat ondorio ekar ditzake, hala nola familiek zuhurtziaz aurrezteko duten joera areagotzea eta enpresen inbertsioa murriztea. Testuinguru horretan, Estatuko eta Nafarroako ogasunek BEZaren arloan duten desadostasunak bere horretan jarraitzen du, auzibidea behin-behinekoz etenda dagoen arren, eta agertokiaren kalterako izan daiteke hori.

Edozein modutan ere, **aldeko hainbat faktore ere badira. Zehazki, petrolioaren prezioak behera egin du** azken asteetan, eta uste baino gehiago, gainera. Nafarroako ekonomia inportatzailea denez, prezioek maila horri eusten badiote, esportatzaileek lehiakortasuna areagotuko lukete, eta familiek ere gehiago aurreztuko lukete. Estatuan, prezioaren beherakadarekin batera eskaria handitu eta egoera horrek denboran iraungo balu, irabaziek Espainiako BPGren puntu bateko baino gehiagoko gehikuntza ekarriko lukete hurrengo urtean.

Epe erdian, **Nafarroak langileko produktibitatearen bilakaera azkartu beharra dauka, horixe baitu per capita terminoetan Espainiako gainerako lurraldeekiko duen diferentzialaren oinarri**, Europako eskualde nagusien mailara hurbiltzen jarraitzeko, bilakaera hori enpleguaren sorrera eta soldaten hobekuntzekin bateragarri eginez. Horretarako, beharrezkoa da hainbat erreforma egitea, **ondasun eta zerbitzuen merkatuaren jarduna hobetzeko**, kapital fisikoan eta teknologikoan egin beharreko inbertsioa sustatzeko, enpresek hasieran nahiz garatzen ari direnean dituzten oztopoak murrizteko eta langilearen produktibitatea eta enpresen neurria areagotzeko. Zehazki, zerbitzuen sektorea arautzeko jardunbidea praktika egokienetara lerratuko balitz, eskualdeko kanpo-sektorearen hazkundera erruz sustatuko litzateke. Azkenik, eskualdeko gobernuak autonomia-erkidegoko defizita murrizteko konpromisoari eutsi behar dio. Beraz, adierazitako alderdi guztiak funtsezkoak izango dira biztanleko BPGren hazkundera bultzatzeko eta Europarekin bat egiteko prozesua errazteko.

Horrez gain, **lan-merkatuan neurri handizaleagoak** behar dira, kontratazio finkoa sustatzeko, soldatak lanaren produktibitatearen eta enpresaren baldintzen arabera aldatzeko aukera emateko, lanaldi partzialeko kontratazioaren erakargarritasuna areagotzeko eta enpleguarekin lotutako politika aktiboen baliabideak eta, batez ere, eraginkortasuna, handitzeko. Alde horretatik, Enplegua Sustatzeko **2014-2016 Estrategia positiboki balioetsi da**¹, baina horren aurrekontuko zuzkidura handitu beharko litzateke, baliabideak langileen enplegarritasuna areagotzeko jarduketetara zuzendu beharko lirateke, eta langabetuek izan beharko lukete prestakuntza-ekintzen jomuga nagusi. Hala, **hezkuntza-sistemaren eraginkortasuna hobetzen jarraitu behar da**, giza kapital handiagoa metatzea eta erakartzea posible izan dadin eta giza kapital horrek Nafarroak I+G+b arloan egiten duen gastua ustia eta handi dezan.

1: Ikusi Situación España, Cuarto Trimestre 2014, hemen: <https://www.bbvaesearch.com/public-compuesta/situacion-espana-cuarto-trimestre-2014/>

2 Berrindartze globala, motela eta beheranzko arriskuekin

Munduko ekonomiaren hazkundera bizkortu egin da azken hilabeteetan, nahiko modu moderatuan bada ere. BBVAren GAIN² ereduaren arabera, munduko BPGk hiruhileko % 0,8ko hazkundera izan du 2014ko hirugarren hiruhilekoan. Dena den, zifra horrek beheranzko joera har dezake, irailaren erdialdetik finantza-merkatuetan tentsioak agertu direlako.

2015ean, hazkunde globala % 3,7ra iritsiko da, eta, beraz, 2014rako egindako estimazioen gainetik kokatuko da puntu erdiko aldeaz (p.p.), batez ere eskarian oinarritutako politiken babesari esker. **Moneta-politikak hedakorra izaten jarraitzen du, eta zerga-politikak, berriz, ez du horren tonu murriztailea izango** Estatu Batuetan eta eurogunean. Txinan ere, aintzat hartu dute nazio mailan hazkundeari eusteko neurri osagarriak ezartzeko aukera, beharrezko irudituz gero³.

Horrez gain, **petrolioaren prezioek izandako beherakadak joera positiboa adierazten du hazkunde globalerako aukerei begira, betiere, petrolioaren ekoizpen ez konbentzionalaren gorakada iraunkorrari esker⁴**, eskaintzaren arloko shock positibo baten emaitza bada. Inportatzaileengandik ekoizleengana errenta-transferentzia txikiagoa izateak tarte handiagoa uzten die lehenengoei gastuen, aurrezpenen eta inbertsioen arloan erabakiak hartzeko, eta agertoki ekonomiko globalerako balantze positiboa dakar horrek.

Eurogunean, suspertzea lehen seihilekoaren amaieran aurreratukoa baino motelagoa ari da izaten. 2014ko bigarren hiruhilekoan BPGk izan duen geldialdia eta 2014ko hirugarren hiruhilekoan ziurrenik horrek izango duen jarraipena kontuan hartuta –ekonomia handiagoetan jokabide ahulagoa izango du–, **beherantz berrikusi behar izan dira 2014 eta 2015. urteetarako eurogunerako hazkunde-perspektibak⁵**. Badirudi Ukrainaren eta Errusiaren arteko krisiaren ondorio izan dela hori neurri batean, krisi horren eragina jasateko arrisku gehien duten ekonomietako merkatu eta konfiantza-adierazleetan sumatzen ari baita hori.

Hazkunde- eta inflazio-tasa txikiko agertoki honetan, EBZk areagotu egin du moneta-politikaren joera hedakorra. Banku-finantzaketarako lehen enkantea abiarazi du, kreditu-balantzearekin lotuta. Horrez gain, banku-sistemaren eskuetan zeuden aktibo finantzarioak erosteko bidea abian jarri du, kredituaren bidez babestuta. Neurri guztiak, bai hartu direnak eta bai har daitezkeenak ere, hazkundeari eustera, enpresei eta familiei zuzendutako kredituen eskuragarritasuna bultzatzera eta inflazio espektatibak prezioen egonkortasun helburura gerturatzera zuzenduta daude. Probabilitate handieneko agertokian, helburu hori lortzen lagundu behar du euroaren depreziazioak, zeina bat datorren Erreserba Federalaren eta Europako Banku Zentralaren jardun-espektatibekin. Lehenengoa pizgarriak kentzen hasiko da, eta, bigarrenak, aldiz, aurkakoa egingo du, eta bere balantzea handituko du.

Euroguneko hazkunderako baldintzen ikuspegitik, bada elementu gehigarri positibo bat: emaitzak berriki argaitaratu dituzten aktiboen kalitatearen berrikuspen-ariketa eta banku-balantzeen estres-testa. Prozesu horrek Europako banku-sektoreari buruzko informazio gehiago eta homogeenagoa ekarri dio merkatuari, eta eurogunean bankuak gainbegiratzeko bide komun bat ezartzea dakar. Behar-beharrezkoa da hori guztia, banku-kredituen fluxua kaudimena duen eskariari erantzuteko gai izan dadin.

2: BBVA Research-en GAIN ereduari buruz xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi 2013ko martxoko *Global Economic Watch*. Hemen eskura daiteke: <http://bit.ly/1nI5RIn>

3: Mundu-ekonomiak berriki izandako bilakaerari eta perspektibei buruz informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi *Situación Global* aldizkaria, 2014ko laugarren hiruhilekoari dagokiona. Hemen: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-global-2/>

4: Petrolioaren prezioek berriki izan duten beherakada ez da soilik eskaintza handiagoa izatearen ondorio; garatutako herrialdeetan nahiz garatze bidean direnetan dolarraren balioa handitzeak eta eskariaren arloko espektatibak moderatzeak ere badu zerikusirik horretan.


5: Europako ekonomiak berriki izandako bilakaerari eta perspektibei buruz informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi *Situación Europa* aldizkaria, 2014ko laugarren hiruhilekoari dagokiona. Hemen: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-europa-cuarto-trimestre-2014/>

Espanian, **aurreikusitakoaren ildotik ari da suspertzen eskaria**. Kontsumoaren hazkunde jarraituari eta inbertsio produktiboari etxebizitzaren eraikuntzaren ataleko inbertsioa ari zaie batzen pixkana, gerta baitaiteke, 2007tik lehen aldiz, atal horrek aldakuntza-tasa positiboak izatea urtearen bigarren zatian, oso modu neurritsuan bada ere. Eskariak izandako hobekuntzaren **euskarri egiturazko faktoreak dira nagusiki**, hala nola barne-desoreken zuzenketa, produkzioa kanporantz orientatzea, abiarazitako zenbait erreforma edota finantza-tentsio txikiagoak. **Hala ere, behin-behinean eskaria sustatu duten faktore batzuk ere badira**, eta, horien artean azpimarratu behar dira moneta-politikaren izaera hedakorra, eta izaera prozikliko ahul bat duen zerga-politika baterantz duela gutxi hartu den bidea. Hortaz, **urte amaiera bitartean Espainiako ekonomiak hazten jarraitzea espero da, eta hazkunde-erritmo hori nahikoa izango da ekitaldia % 1,3 inguruko hedapenarekin amaitzeko**.

Aurrera begira, agertoki globalean txertatutako berrikuntzetan, Europako ekonomiaren hazkunde-espektatibak beheranzko joeraz berrikusi izana da nagusi; eta **2015. urterako Espainiarako hazkunde-aurreikuspenaren berrikuspen negatiboa adieraziko du horrek, hiru hamarren txikiagoa izango baita, % 2,0ra iritsi arte**. Hala eta guztiz ere, susperraldiaren abiadurak sendoa izaten jarraitzen du, eta kanpo nahiz barne faktoreek erabat bermatzen dute. Nazioarteko ekonomiari dagokionez, ekonomia globala modu moderatuan bizkortuko dela espero da, eta, horren ondorioz, **oinarri esportatzailea hedatzen jarraitzea** ahalbidetuko du. Espainian, oinarritzakoak berreskuratzeak, desorekak zuzentzen aurrera egiteak eta politika ekonomikoko eskariari pizgarriak emateak **barne eskariaren gorakada orokorra** ekarriko dute.


Dena den, komeni da gogoan izatea **susperraldiak ez dela arriskurik gabea**, eta hainbat frontek irekita jarraituko dutela; eta oinarri-oinarritza da horiei irtenbidea ematea, epe ertain eta luzera hazkundera sendotuko bada. Ikuspegi horretatik, **eskaintzan oinarritzen diren politikak landu behar dira bai Espainian eta bai European, zalantzak argitu eta egiturazko hazkunderaren ahalmena indartzeko**.

2.1 grafikoa
Munduko BPGren hiruhileko hazkundera (BBVA-GAIN ereduaren arabera aurreikuspenak, %)



Iturria: BBVA Research

2.2 grafikoa
Espainia: behatutako BPGren hazkundera eta aurreikuspenak, MICA-BBVA ereduaren arabera (%/h/h)



(e): aurreikuspena.
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2.1 koadroa

Espainia: aurreikuspen makroekonomikoak

%, u/u, besterik adierazi ez	1H14	2H14	3H14 (e.)	2013	2014 (a)	2015 (a)
Azken Kontsumo Nazionala	1,2	2,0	1,8	-2,4	1,8	1,5
A.K. Etxeak	1,7	2,4	2,4	-2,3	2,1	1,8
A.K. Herri-administrazioak	-0,2	1,1	0,1	-2,9	1,0	0,9
Kapitalaren Erakuntza Gordina	-1,3	1,4	1,5	-3,7	0,7	4,2
Kapital Finkoaren Erakuntza Gordina	-1,2	1,2	1,2	-3,8	0,6	4,3
Estoken aldaketa (*)	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0
Eskari-nazionala	0,7	1,9	1,7	-2,7	1,6	2,0
Esportazioak	7,4	1,7	2,7	4,3	3,7	5,3
Inportazioak	8,6	3,9	3,2	-0,5	4,8	5,5
Kanpo-saldos (*)	-0,2	-0,7	-0,1	1,4	-0,3	0,1
BPG erreala mp	0,5	1,2	1,6	-1,2	1,3	2,0
BPG nominala mp	-0,1	0,8	1,6	-0,6	1,2	3,4
Pro-memoria						
Enplegua (BAI/EPA)	-0,5	1,1	1,6	-2,8	1,0	1,8
Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)	25,9	24,5	23,7	26,1	24,4	23,1
Enplegua guztira (l.o.b.)	-0,4	0,8	1,2	-3,3	0,8	1,5

(*) Ekarpenak hazkunderari

(e): estimazioa; (a) aurreikuspena

Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta

3 Hazkunde-aurreikuspenak: Nafarroa

Hainbat faktorek izan dute eragina Nafarroako ekonomian aldizkari honen aurreko alea argitaratu zenetik, 2013ko apiriletik⁶. Alde batetik, nazioartean arriskuren batzuk agertu arren⁷, **finantza-merkatuak joera positiboagoan egonkortu dira**, kapital-fluxuen sarrera normaldu, burtsa-kotizazioak handitu eta arrisku-sariak xikitu direlako. Aldi berean, **jarduera eta enplegua poliki-poliki indartzen hasi direla** ikusi da, Europako ekonomiaren suspertze moderatuak ere bultzatuta, inoiz baino baxuago dauden arrisku gabeko interes-tasen testuinguruan. Gainera, Europan finantza-sektoreak zatituta jarraitzen duen arren, EBZren moneta-politika oldarkorragoaren ondorioz, familiei eta enpresei zuzendutako interes-tasak murriztu ahal izan dira, eta suspertze-prozesua bultzatu du horrek.

Nazioarteko testuingurua pixkana hobetu arren, 2013. urtean, uzkurtze handia gertatu zen Nafarroako ekonomian, eta, INEren arabera, Nafarroako BPG % 1,5 murriztu zen; hau da, BBVA Research-en aurreikuspena eta Espainia osoan erregistratutako beheraldia **baino hiru hamarren okerrago** (% -1,2). Urteko lehen seihilekoan barne-eskariaren zuzenketa handiagoak eta Nafarroako esportazioak iazko bigarren seihilekora arte suspertu ez izanak azaltzen dute **Nafarroako ekonomiak 2013ko lehen seihilekoan izandako bilakaera okerrago hori**, euroguneko bigarren atzeraldian izandako unerik zailenek baldintzatuta. Bigarren seihilekoan, eta jada argiago **2014. urtean, koiuntura-informazioak azelerazio argia** erakusten du, eta Nafarroan jarduera-hazkundera gertatzen ari dela berresten du horrek. Izan ere, Nafarroako ekonomiaren azelerazio indartsua hauteman zen (bereziki lan-merkatuari eta kanpoko salmentei dagozkien datuetan), aurreikuspen berrikuspenak gorantz bultzatu⁸. Dena den, Europako ekonomiek 2014ko hirugarren hiruhilekoan izandako geldialdiak eragina izan du Nafarroako ekonomian, eta azken aldi behatutako azeleraziorako joera eten egin da. Horren ondorioz, eskualdeko BPGren hazkunderako joera finkatu egin da 2014. urtean, duela urte eta erdikoa baino ikuspegi baikorragoz baina, duela hiru hilabete egindako aurreikuspenak hein batean zuzenduz.

Diru-sarrera publikoen hobekuntza ziklikoak zerga-politika nasaiagoa ahalbidetuko dezake horretarako aukera duten herri-administrazioetan. Adibidez, gobernu zentralak zerga-erreformaren legegai-zirriborroak aurkeztu zituen bigarren hiruhilekoan; funtsean, zuzeneko zergen –PFEZ eta Sozietateen gaineko Zerga-mailakako murrizketa ekarriko du horrek 2015 eta 2016. urteetan Espainiako gainerako lurraldeetan. Txosten hau amaitzeko unean, Nafarroa antzeko murrizketa bat onartzeko bidean da (gobernuak eta PSNk hitzarmen bat iragarri dute), eta azkenan onartuko balitz, barne-eskari pribatuak bultzada gehigarria izango luke, epe laburrera begira.

Azken batean, **barne-eskariari eutsiko diote** konfiantzaren berrezartzeak, enpleguaren suspertzeak, EBZk moneta-hedapen eta kreditu-sustapenerako ezarri neurriek⁹ eragindako finantziario kostuen murrizketak, hain murrizkorra ez den politika fiskalak eta kanpo-sektorearen arrastre-efektuak. Gainera, krisiaren aurretik eta ondoren metatutako desoreken zuzenketa txikiagoa ere lagungarria izango zaio Nafarroari. Aurreko guztia kontuan izanda, **BPGren % 1,4ko hazkundera espero da urte honetarako, eta 2015. urtean % 2,2ra iritsiko dela aurreikusten da, Espainiako hazkunderaren batez bestetik gora bi kasuetan (% +1,3 eta % 2,0, hurrenez hurren, 2014an eta 2015ean).**

Aurreikuspen horietan bada **arriskurik: arlo fiskalean**. 2014. urtean Nafarroako gobernuak defizit autonomikoaren helburua lortzea litekeena den arren, gobernu zentralarekin egin beharreko hitzarmenek,

6: Ikusi Zertan den Nafarroa, 2013, hemen eskura daiteke: <https://www.bbva-research.com/publicaciones/zertan-den-nafarroa/>

7: Honako hauek alpa daitezke: Europako zenbait herrialderen ezegonkortasun politikoa, AEBko zerga-ziurgabetasuna eta jarduera moteltzea garatze bidean dauden zenbait ekonomiatan.

8: Gai horrekin lotuta, ikusi *Situación España* aldizkaria, 2014ko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoei dagozkienak.

9: Bereziki nabarmentzen da finantziario operazio nagusien interes tasen jaitsiera berria, %0,05eraino, gordailu aukeraren ordainaren jaitsiera -%0,1era, Epe Luzeko Finantziario Eragiketen programa berria eta, azkenik, etorkizuneko moneta politikaz eman argibideen berritzea: beharrezkoa bada, neurri konbentzional zein ez-konbentzionalak ezartzen jarraituko du.

bereziki BEZaren auzian¹⁰ –uneotan auzibidea etenda egon arren–, doikuntza gehigarri garrantzitsuak eragin ditzakete. Gainera, maila orokorragoan, **merkataritza-bazkide nagusien ekonomien suspertze-erritmoak, gertaera geopolitikoei lotuta hauteman daiteken ziurgabetasunak eta erreformen aurrerapenak**, EBren barnean, Espainian eta, bereziki, Nafarroan bertan, ekonomiaren bilakaera baldintzatuko dute epe laburrean.

Nolanahi ere, **epe erdi eta luzera begira, nahitaezkoa da Nafarroako ekonomiak aurrera begira dituen erronketan sakontzen jarraitzea, bereziki langabezia-tasa onartezinarekin zerikusia dutenetan, giza kapitalaren hobekuntzan eta produktibitatearen handitzean.**

Nafarroako ekonomiaren uzurtze handia 2013ko lehen zatian

2012. urtean, konfiantza falta nagusitu zen, finantza-tentsioak areagotu ziren eta zergak finkatzeko prozesuak nahiz egiturazko erreformak azkartu ziren, eta, horren guztiaren ondorioz, BPGk % 1,6ko jaitsiera izan zuen (Espainiakoaren parekoa); ondoren, **2013an Nafarroak antzeko atzeraldia jasan zuen (% -1,5ekoa**, Espainiako Eskualde Kontabilitatearen –CRE– arabera, INEk argitaratutakoa¹¹), eta BPG Espainian baino gehiago jaitsi zen (% -1,2), nazioarteko testuinguruak eta finantza-baldintzek hohera egin arren.

Eskuragarri dauden azken datuek erakusten dute nola, 2013ko lehen sei hilekoko datu negatiboen ondotik (2013ko lehen hiruhilekoan izan zuen erregistrorik okerreana, % -0,9 h/h), Nafarroako ekonomiak hazkundearen bideari heldu dion, 2014an jarduera pixkanaka azkartuz, 2013ko hirugarren hiruhilekotik hazkunde-tasa positiboak lortuta. Hala, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak seinale positiboa eman zuen 2013ko hirugarren hiruhilekoan, eta joera horri eutsi dio aurtengo hiruhilekora arte, izan ere, berrikitan inkestari erantzun dion gehiengoak jarduerak aurrerapen osagarriak izan ez duela uste baitu (ikus 3.1 grafikoa). Nafarroako MICA-BBVA ereduak adierazten du, 2013an atzeraldi sakonagoa izan arren, urte hortako azken hiruhilekoan hazkundera itzulia legokela Nafarroako ekonomiara. Ordutik, jarduera azkartu izango zen, hazkundera 2014ko lehen hiruhilekoetarako % 0,5 h/h ingurukoa izateraino (ikus 3.2 grafikoa), baina joera hori leundu egin dela dirudi urtearen azken zatian, Europar gertatutako moteltzearen ondorioz. Dena den, Nafarroako ekonomiaren berrabiatzea nahiko dinamiko ageri da eta leuntze horrek behin-behinekoa izan liteke. **2015. urteari begira, txosten hau amaitzeko unean eskuragarri dugun informazioaren arabera, jarduerak 2014an abiarazitako joera hedakorra izaten jarraituko du**, honako hauei esker nagusiki: kontsumoaren –batez ere pribatua– mailakako suspertzea (ikus 3.3 grafikoa), inbertsioaren ekarpen negatiboaren murrizketa eta kanpo-sektorearen suspertzea, Europako ekonomiaren hobekuntzaren eta ganbio-tasaren depreziazioaren ondoriozkoa.


Edonola ere, **arriskuak ere hor daude**: barne desoreken zuzenketa nolakotasuna, batik bat lan-merkatuan, kanpo-sektorearen bilakaera eta horrek barne-eskariari dinamikotasuna jariatzeko duen ahalmena izango dira Nafarroako koiuntura ekonomikoa datozen hiruhilekoetan markatuko dutenak, Europaren bilakaerakin batera. Hala, bada, **Nafarroako ekonomiaren benetako dinamismoa berreskuratzeko gakoak egiturazko erreforma handizaleak abiarazteko aukeran, zerga-ziurgabetasunaren murrizketan eta kanpo-merkatu nagusien bilakaeran dago.**

10: Nafarroak eta Estatuak Auzitegi Gorenaren aurrean aurkeztutako errekurtsioa bertan behera uztea adostu dute; horren ordez, Ekonomia Hitzarmena koordinatzen duen batzordera bideratu dute 2007tik 2011ra egindako zenbait automobil esportazioen BEZa itzultzeko auzia. Estatuak 1.513 milioi € eskatzen dizkion foru-erkidegoari auzi horretan.

11: INEk Espainiako Eskualde Kontabilitateari (EEK) buruz argitaratutako datuak 2008. urtean oinarrituta daude, eta ez datoz bat erakunde horrek irailaren 25ean argitaratutako informazioarekin; azken horretan, Espainia osorako soilik, 2010ean oinarritutako koadro makroekonomikoa agertzen da. Gainera, ez datoz bat ezta ere Nafarroako Estatistika Erakundeak (IEN) argitaratutakoekin: % 1,5ekoak 2012rako, eta % 1,3koak 2013rako (u/u); izan ere, *input output* taulak eta oinarri-urteak desberdinak izan daitezke Autonomia Erkidegoetako Hiruhilekoko Kontabilitatean eta EEKn.

3.1 grafikoa


Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta Nafarroan (muturreko erantzunen saldoa, %)



Iturria: BBVA Research, INEn eta iturri nazionaletan oinarrituta

3.2 grafikoa


Nafarroa eta Espainia: aurreikusitako BPGren Hazkundera, MICA-BBVA ereduaren arabera (% , h/h)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.3 grafikoa

Nafarroa: hiruhilekoko BPG eta eskariaren osagaien arabeko ekarpenak (% , u/u, zikloa - joera)



Iturria: BBVA Research, Nafarroako Estatistika Institutuan (NEI) oinarrituta

Konsumo pribatuaren susperraldiaren zantzuak

Espainian behatutakoaren ildotik, lan-merkatuaren aurrerapenari, familien errenta eskuragarriari, egoera ekonomikoari buruzko ikuspegiaren hobekuntzari¹², finantza-aberastasun garbia handitzeari¹³ eta PIVE programa¹⁴ indarrean jarraitzeari esker, **Nafarroako barne-konsumoak inflexio-puntua izan zuen 2013an**. Zehazki, urtarokotasun eta egutegi-eraginak zuzenduta (UEEZ), koiuntura-adierazle partzialak hiruhilekoko hazkunderetan tasa positiboak agertzen hasi ziren eskualdean, batzuk lehenengo hiruhilekotik jada –matrikulazioak, zerbitzu sektoreko jarduera indizea (ZSJ)–, eta are argiago urtearen bigarren zatian,

12: Ikusi 3.1 grafikoa eta, zehaztasun gehiago nahi izanez gero, ikusi 1. errekoadroa.


13: Espainiaren kasuan, finantza-aberastasun garbi errearen hiruhilekoko % 1eko igoerak hurrengo lau hiruhilekoetan konsumo pribatuaren % 0,2ko igoera metatua eragingo duela kalkulatzen da.

14: PIVE planak turismo eta ibilgailu komertzial arinen ordezkapena du helburu, 10 eta 7na urteko antzinatea badute, hurrenez hurren, eraginkortasun energetiko handiagokoengatik. BBVA Research estimazioen arabera, PIVEK 9 hamarreneko ekarpena egin dio konsumo pribatuari, 2012ko urrian Espainia osorako lehen deialdia egin zenetik.

txikizkako salmentetan, kasu. Hobekuntza progresibo horri esker, matrikulazioen urteko hazkundera % 11,7koa izan zen, baina hazkunde hori ez zen lineala eta jarraitua izan adierazle guztietan; izan ere, zerbitzu sektore jarduera indizeak nahiz txikizkako salmentek behera egin zuten Nafarroan 2013an (% 4,5 eta % 2,4, hurrenez hurren), nazioko agregatuaren gaintetik.


Ekitaldi honekin lotuta eskuragarri ditugun datuek kontsumo pribatuak hobera egiten jarraituko duela adierazten dute (ikusi 3.3 grafikoa). Inflazio neurritsuak eta interes-tasen mailakako murrizketak – EBZren moneta-politikaren joera hedakorarekin eta Europako zatiketa txikiagoarekin batera– familien kontsumoaren suspertzea finkatu dute. Hala, Nafarroako kasuan, matrikulazioen hazkundera % 16 (u/u) ingurukoa izan da, abuztu arteko datuen arabera (ikusi 3.4 grafikoa), eta puntu portzentuala gaindi dezake ZSJren hiruhilekoko batez besteko tasetan (% +2,2 hirugarren hiruhilekora arte, 2014an % +1,4an itxi dezakelarik), urteko lehen erdian gertatutako hazkundeei esker (ikusi 3.5 grafikoa), txikizkako salmentetan gertatu den bezala. Joera hori bat dator Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren emaitzekin (ikusi 1. errekoadroa), horietan ere kontsumitzaileen konfiantza hobetu dela eta txikizkako salmentek gora egin dutela ikusten baita 2014ko lehen sei hilekoan, urte horretako azken hiruhilekoan joera hori moteldu egin den arren. Moteltze horrek behin-behinekoa dirudi, inkestari erantzun diotenen laugarren hiruhilekorako aurreikuspen hobekaitzuzte. Aurrera begira, barne-kontsumoaren hedapen-erritmoari eutsiko zaiola aurreikusten da, lan-merkatuaren suspertzean, presio inflazionisten faltan eta inoiz baino baxuago dauden arriskurik gabeko interes-tasetan oinarrituta.

3.4 grafikoa
Nafarroa eta Espainia: matrikulazioen aldakuntza (% u/u)



Iturria: BBVA Research, Trafikoko Zuzendaritza Nagusian (DGT) oinarrituta

3.5 grafikoa
Zerbitzu sektoreko jarduera-indizea (% hiru hilekoko batez besteko hazkundera, urtarokotasuna zuzenduta)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta. 2014 (au), datu ezagunetan oinarritutako aurreikuspena, 3H14 arte

Nafarroak neurri gehigarriak hartu gabe bete beharko luke 2014ko helburua

2013an, Nafarroako Foru Erkidegoak 0,3 p.p.-tan murriztu zuen defizita, eskualdeko BPGren 1,4an kokatuta; hala, ez du bete ekitaldi horretarako adostutako egonkortasun-helburua, % -1,2-koa (ikusi 3.6 grafikoa). Hala ere, defizit horren 0,5 puntu kontabilitate nazionalen gertatutako doikuntza bati egozten zaizkio, 2013an Nafarroak Estatuari ordaindutako kopuru batzuegatik, 2012ko ekitaldiari egotzitakoak. Doikuntza hori gertatu izan ez balitz, foru-erkidegoaren defizita %1aren azpitik legoke. Beraz, 3.7 grafikoa ikus daitekeenez, **2013an zergak doitzeko politikari eutsi zitzaion, eta defizitaren murrizketa gainerako kapital-gastuetan metatu zen, eta baita, hein txikiagoan bada ere, tarteko kontsumoetan.** Hala,


Nafarroako zor autonomikoa BPGren % 17,7ra iritsi zen, batez besteko autonomikoaren azpitik berriro ere (% 20,2).

Nafarroak duen foru-sistema bereziari esker, finantza-merkatu tradizionaletan finantziazioa lortu ahal izan du, gobernu zentralak likidezia eskuratzeko ezarritako bideetara jo beharrik gabe. 2014ko lehenengo hilabeteetan, Nafarroako Gobernuak zorra jaulki zuen berriro, eskualdeko BPGren 1,6 p.p.-ren baliokoa. Horren ondorioz, 2014ko lehen seihilekoan, zorra BPGren % 19,1era iritsi zen, urte amaierarako finkatutako % 17,4-ko zor-helburuaren gainetik (ikusi 3.8 grafikoa).

2014ko abuztura arteko aurrekontuen gauzatze-datuei buruzko informazioak erakusten du **Nafarroak iaiz baino bilakaera hobea izan duela, funtsean, diru-sarrerari dagokionez nagusiki**. 2014ko abuztura arteko zerga-bilketa % 16 handitu da iazko epe berarekiko, BEZaren diru-sarreraren dinamismoak bultzatuta. Bestalde, erkidegoko gastuak aurreko urtekoen antzekoak izan ziren, eta herri-administrazioen arteko transferentzia arruntek eta diru-laguntzek baino ez zuten behera egin. Horren ondorioz, **aurtengo abuztuan, Nafarroako defizita BPGren % 1,4 inguruan kokatu zen, 2013ko abuztura arte erregistratutakoaren puntubete portzentual azpitik** (ikusi 3.9 grafikoa).


Testuinguru horretan, 2014rako Plan ekonomiko finantzarioari buruzko informazioa eskura dugula, **litekeena da Nafarroak egonkortasun-helburua beteko duela 2014. urtean (% -1,0)**. 2015. urteari begira, aurrekontu-legearen aurreproiektuak aurreikusten duenez, Nafarroak kostuak murrizteko politikari eutsiko dio –sektore publikoa berrantolatuz, nagusiki–, eta ekitaldi hori egonkortasun-helburua betez ixtea proposatzen du (eskualdeko BPGren % -0,7). Helburu hori betegarria da, beti ere, aurrez, 2014ko helburua bete dela egiaztatutakoan.

3.6 grafikoa
Nafarroako F.E.: finantziazio gaitasuna / beharra (eskualdeko BPGren %)




Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

3.7 grafikoa
Nafarroako F.E.: zerga-doikuntzaren deskonposaketa (eskualdeko BPGren p.p)




Oharra: (+) Oharra: (+) defizita murrizten da, diru-sarrerak handitzen direlako edota gastua txikitzen delako; (-) defizita handitzen da, diru-sarrerak txikitzen direlako edota gastua handitzen delako.
Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

3.8 grafikoa
NFE: PDE zorra (eskualdeko BPGren %)



Iturria: BBVA Research, BdEn oinarrituta

3.9 grafikoa
NFE: finantzatzeko gaitasuna (+) / beharra (-)
(eskualdeko BPG)




Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

Ekipo-ondasunetako inbertsioak hobera egin du pixkana


Ekipo-ondasunetako inbertsioaren bilakaerak argi islatzen du Nafarroako ekonomian behatzen den hobekuntzarako joera. Krisiaren hasierako fasea errazago igarotzeari eta 2010 eta 2011. urteetan suspertze handiagoa lortzeari esker (kanpo-sektoreak, enpresen finantza-desoreka txikiagoak eta eraikuntzaren sektorearekiko mendekotasun txikiagoa izateak ere lagunduta), inbertsioak zuzenketa txikiagoak behar izan zituen, 2012. urte bukaeran krisialdiaren bigarren atzeraldi-fasean sartu aurretik. 2013an zuzenketa handixeagoa egin ondoren, bigarren fase horretatik irteterako orduan **ekipo-ondasunen inbertsioaren dinamismo handiagoa hautematen da Nafarroan.** Ekipo-ondasunen inportazioek behera egin zuten Nafarroan eta Espainian 2013an, % 6,1 eta % 1,3, hurrenez hurren, baina 2013ko bigarren hiruhilekotik goranzko joera hartuko dute, azken bi urteetan izandakoen gaintik kokatzeko (ikusi 3.10 grafikoa). BBVA Research-en aurreikuspenen arabera eta urtarokotasuna zuzenduta, ekipo-ondasunen inportazioak, Nafarroan, 3H2013an izandakoak baino % 22,1 handiagoak izan daitezke 3H2014an (Espainian behatutako % 4,8koarekin alderatuta). Halaber, Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI) arabera, makinerian eta ekipo-ondasunetan egindako inbertsioa % 0,5 h/h handitu zen, batez beste, 2014ko lehen sei hilekoan. Nolanahi ere, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak Nafarroan jasotako industria-inbertsioari buruzko adierazle erlatiboak 2014ko hirugarren hiruhilekoan egoerak okerrera egin duela adierazten du (ikusi 3.11 grafikoa), eta bat dator hori euroguneko zenbait herrialdetan azken aldian hautemandako dinamismo galera erlatiboarekin.

3.10 grafikoa
Nafarroa eta Espainia: ekipo-ondasunen inportazioak (1H08=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta


3.11 grafikoa
Nafarroa: industria-inbertsioa Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren arabera eta Makineriako Inbertsioa (erantzunen saldoak eta h/h, %)



Iturria: BBVA Research, BBVAren inkestan eta NEI-n oinarrituta

Nolanahi ere, Kapital Finkoaren Eraketa Gordinak (KFEG) azken aldiandako bilakaerak makineriaren alorreko KFEGren eta eraikuntzaren alorreko KFEGren arteko erritmo ezberdintzea adieraziko luke 2014. urtean (ikusi 3.12 grafikoa), krisi-garaian metatutako desorekak zuzentzeko eta produkzio-eredu desberdin bateranzko bidea jorratuko lukena.

3.12 grafikoa
Nafarroa: Kapital Finkoaren Eraketa Gordina Makinerian eta Eraikuntzan (%)



Iturria: BBVA Research, NEI-n oinarrituta

Eraikuntza-sektorea ez da suspertzen, desoreka txikiagoak izan arren

Joan den hamarkadaren lehen zatian eraikuntza-sektoreak gehiegikeria gutxien pilatu zuen eskualdeetako bat da Nafarroa, eta, horren ondorioz, gaur egun desoreka maila txikiena duen eskualdeetako bat da. Hala, Sustapen Ministerioak emandako zifren arabera, saldu gabeko etxebizitza berrien stocka etxebizitza guztien % 0,4 zen iaz, Espainiako % 2,2ko batez bestekoaren oso azpitik. Horrenbestez, **Nafarroan etxebizitzaren gain-eskaintzarik ez duela** esan daiteke, beste autonomia erkidego batzuetan ez bezala.

Eskualdeko higiezin merkatuak gain-eskaintza arazorik izan ez arren, **etxebizitzaren eskariaren dibertsifikazioa txikia du ahulgune**. Bigarren etxebizitza erosi nahi dutenen pisua beste eskualde batzuetakoa baino txikiagoa da, batetik, atzeritarrek etxebizitza gutxiago erosten dituztelako, eta, bestetik, Espainian nahiz erkidegoan bertan bizi direnen eskaria ere txikiagoa delako. 2013. urtean, salmenten joera handitzen joan bazen ere, etxebizitzaren eskaria aurreko urtean baino ahulagoa izan zen, ekonomiaren uzurtze handiagoaren eta etxebizitzari eragin zion zerga-aldaketaren ondorioz¹⁵, azken horrek eragiketarako 2012ko azken hilabeteetara aurreratzea ekarri baitzuen. Beheraldi hori % -24,0-koa izan zen, Espainiako batez bestekoaren gaineratik (% -17,3), eta barne-eskariaren erorketaren ondorio da, beste autonomia erkidego batzuetan bizi diren espainiarren eskariak uzurtze hori arinki moteldu bazuen ere.

2014an, hiruhilekoei dagokienez apiriletik ekainera bitarteko salmentak nahiko ahulak izan baziren ere, **urteko lehen seihilekoan eragiketaren urte arteko hazkunde garrantzitsua izan zen**, etxebizitzaren BEZaren igoerak eragindako oinarri-efektuaren ondorioz (ikus 3.13 grafikoa). Hala ere, eskualdeko salmenten kopurua aurreko urteetako baino askoz ere baxuagoa da.


2013. urtean eskaria asko murriztu bazen ere, etxebizitzaren prezioak termino errealean iraunkor eutsi zion Nafarroan, Espainian batez beste % 7,2 erori bazen ere. Aitzitik, aurtengo lehenengo bi hiruhilekoetan, prezioak, batez beste, % 1,6 h/h (UEEZ) egin zuen behera, Estatuan baino gehiago (% -0,7 h/h). Hala, bada, etxebizitzaren prezioaren erorketa metatua Nafarroan % 24,5ekoa da (Espainiakoa, berriz, % 37,9koa).

Eskari ahularen ondorioz, eraikuntzaren sektorearen jardura oso txikia da, gain-eskaintzarik ez dagoen arren. 2013. urtean, bisatuak % 50 uzurtu ziren aurreko urtearekiko, Espainian baino dezente gehiago (% 22), eta 2012an izandako uzkurduraren gaineratik (% -34 u/u). Hala ere, 2014. urtean, erorketa moteldu egingo da nabarmenki: urtarriletik abuztura bitartean –hori da eskuartean dugun azken datua– sinatutako bisatuen kopurua % 12 uzurtu zen aurreko urtean garai berean izandakoarekiko (ikus 3.14 grafikoa). Moteltze hori ez dator bat Estatuan erregistratutako handitzearekin (% 3 u/u baino gehiago).

15: Euskadin eta Nafarroan eutsi egin zitzaizkien etxebizitza arrunta erosteagatikoen kenkariak, gainerako autonomia-erkidegoetan 2013ko urtarrilaren 1ean desagertu ziren arren. Hala ere, BEZaren % 4tik % 10erako igoerak eragina izan zuen etxebizitzan.

3.13 grafikoa


Nafarroa: etxebizitzaren salmenten urte arteko hazkundeari egindako ekarpena (p.p.-tan)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

3.14 grafikoa

Nafarroa: etxebizitzaren berriak eraikitzeko bisatuak (UEEZren datuak)




Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

Lizitazioak mantsoago egin du aurrera Espainian batez beste baino

Urteko lehen zortzi hilabeteetan, obra publikora zuzendutako aurrekontua % 23,0 hazi zen Nafarroan, 2013an aldi horretan bertan izandakoarekin alderatuta, eta Espainiakoaren batez bestekoaren azpitik (% 52,3) kokatu da. lazko urtean obra publiko berriek izan zuten atzeraldari -ia % 60 jaitsi zen 2012koarekiko- kontrajartzen zaio hazkunde hori. Hala eta guztiz, krisi aurreko garaietako mailaren oso azpitik kokatzen da lizitazioa. Obra moten arabera aztertuta, argi ikusten da lizitazioaren gorakada hori obra zibilaren ataletik etorri dela; izan ere, urtarrietik abuztura bitartean, eraikuntzaren arloko lizitazioa murriztu egin zen: obra zibilaren aurrekontua % 54 (u/u) hazi zen, eta eraikuntzakoak, berriz, % 32 egin zuen behera. Hortaz, obra zibila 2013an aurrekontu osoaren % 62 izatetik, aurtengo lehen zortzi hilabeteetan % 80 gainditzera iritsi da (ikusi 3.15 grafikoa).

3.15 grafikoa


Herri-lanek urte arteko hazkundeari egindako ekarpena, lan motaren arabera (1S14, p.p.)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

3.16 grafikoa

Nafarroa: lizitazioen aurrekontua eragileen arabera (milioi euro)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta


Bereizketa erakunde finantzazailen arabera eginez gero, eskualdean obra publikoen finantzaketan Estatuak duen pisua handitu egin dela ikusten da, nahiz eta, proportzioan, lurralde-erakundeei dagokienaren oso azpitik kokatzen den. Ildo horretatik, urteko lehen zortzi hilabeteetan metatutakoak argi erakusten du Estatuaren aurrekontuari % 6,7 dagokiola zenbateko osotik, 2013ko lehen zortzi hilabetearekiko ia hirukoiztu egin bada ere. Bestalde, lurralde-erakundeei dagokien lizitazioak % 18,3ko gorakada izan zuen garai horretan (ikusi 3.16 grafikoa). Urtearen lehen zortzi hilabeteetan, 2014ko lehen erdiko lizitazioaren zatirik handiena hirigintza-lanetara, lan hidraulikoetara eta errepideetako lanetara zuzendu zen.

Nafarroako kanpo-sektorearen indarrak bultzatzen du susperraldiaren abiadura

Nafarroaren ezaugarrietako bat da **ondasunen esportazioek bertako BPGn duten pisu garrantzitsua, % 40ko pisua baitute, Espainiako eskualdeen artean altuenetakoa**; eta ondasunen esportazioetan automobilgintza sektoreak duen pisu handia ere ezaugarri du, zenbateko osoaren % 45ekoa baita. Europako merkatu nagusietan eta, bereziki, automobilgintzan izandako dezelerazioak eraginda¹⁶ 2012an zuzenketa garrantzitsua izan ondoren (esportazioetan %- 15,1eko ereriko erreala), **kanpo salmentak pixkana suspertzen hasi ziren Nafarroan, 2013an % 2ko hazkunde erreala izateraino**, oraindik ere Espainiako batez besteko hazkundearen apur bat azpitik (% 3,8). Urtarokotasuna zuzenduta, aurtengo urteari buruz ditugun datuek diotenez, **eskualdeko esportazioen hazkunde-erritmoak Espainiakoa gainditu du 2014an**, Nafarroan urte arteko hazkundea % 5,7koa bailitzateke, eta Estatuan, osotara, % 2,2ekoa (ikusi 3.17 grafikoa), nahiz eta urtearen azken seihilekoan dezelerazio bat ere gerta daitekeen.

3.17 grafikoa


Nafarroa eta Espainia: esportazio errealak (mar-08=100; UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.18 grafikoa

Nafarroa eta Espainia: esportazio errealak (h/h; UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Nafarroaren 2013ko esportazioak helmugaren ikuspuntutik aztertuz, hiru herrialde multzo bereiziko dira (ikusi 3.19 grafikoa). Alde batetik, **gorakada txikiak izan dira Europako bi merkatu nagusietan**, Nafarroako esportazioen % 40 jasotzen dituztelarik: Frantzian (% +0,8 u/u) eta Alemanian (% +4). Bestalde, esportazioen %24 hartzen duten **mendebaldeko ohiko merkatuetan bilakaera gorabeheratsua izan da**: Italian eta Ameriketako Estatu Batuetan, % 20tik gorako ererikoak izan dira, eta, Erresuma Batuan, aldiz, salmentek % 36,5 egin dute gora. Azkenik, **EAGLES¹⁷ herrialdeetan, hazkunde garrantzitsuak izan dira**,

16: Ikusi Zertan den Nafarroa 2013, 13-15. or., hemen: <https://www.bbvaesearch.com/publicaciones/zertan-den-nafarroa/>


17: EAGLES-BBVA: Emerging and Growth-Leading Economies, Garatze bidean diren ekonomiak eta hazkundearen liderrak. Brasil, Txina, India, Indonesia, Mexiko, Errusia, Turkia

% 14,4 ingurukoak, eta Turkia (% +23,8), Txina (% +15,5) eta, zentzu negatiboan, Brasil (% -5,4) nabarmendu dira; Nafarroako kanpo-salmenta guztien % 11 hartzen dute azken hauek, eta 2000tik 2007ra bitartean batez beste zuten pisua bikoiztu baino gehiago egin da, horrenbestez.

2014an, abuztura arteko datuek **% 8,5eko hazkunde nominala (u/u)** erakusten dute osotara, **eta, Europako herrialdeen kasuan, areagotu egin da urtez urteko hazkunde hori**, % +9,7ra arte (EB-28ra zuzentzen diren esportazio nominaletan), nahiz eta **Asiaren kasuan neurritsuagoa** izan den hazkundea (% +5,6 u/u); aldiz, Erdialdeko Amerikara eta Ipar Amerikara zuzendutakoek % 33ko hazkundea izan dute, eta, Nafarroaren kanpo-merkatuari dagokionez, % 6k helmuga horiexek izan zituzten, hain zuzen, iaz. Nafarroako esportazioen ezaugarriak eta dibertsifikazioaren eraginak sakonago aztertu dira argitalpen honetako 2. errekoadroan.

3.19 grafikoa

Nafarroa: esportazioen hazkundea 2013an vs 2008tik 2013ra hazkundeari egindako ekarpenak (bolaren neurria: esportazio nominalen pisua 2013an)



Iturria: BBVA Research Datacomex-en oinarrituta


Nafarroako esportazioen hazkundeak, beraz, arrisku handiagoa du eurogunean izan daitekeen dezelerazioaren aurrean, eta nahitaezko baldintza du potentzial handiagoko merkatuetara eta bereziki Amerikara hedatzeko prozesuarekin jarraitzea, Nafarroako esportazioen pisu erlatiboa txikia baita oraindik berorietan.

Sektoreei erreparatuta, **bi sektore hauek azalduko lukete** abuztura bitartean **Nafarroako kanpoko salmenta nominalek izandako goraldia** (ikusi 3.20 grafikoa): **automobilgintzak eta ekipo-ondasunek** (hurrenez hurren, 3,7 eta 3,6 puntu portzentualeko ekarpena). Horiexek dira, hain zuzen, azken urteetan esportazioen bilakaera gidatu dutenak, beherantz 2012an eta gorantz gainerako urteetan. Kontrara, erdi-manufakturak % 4,8 gutxiti ziren iazko urtean, eta gainbehera hori areagotu egin da aurrean: abuztu arteko datuen arabera, % 8,5 u/u.

Horrez gain, **elikadura-sektoreko salmenten bilakaera ona nabarmendu behar da**: urtean, orain arte, % 12,4 hazi da, eta bat dator hori azken bost urteotako hazkundearen batez bestekoarekin; gainera, 2014. urtean, urte arteko hazkundeari 1,4 puntu portzentualeko ekarpena egingo lioke. **Hamar urtean, sektoreak esportazioen balioa bikoiztu egin du euro korranteetan**, eta 2013an 800 milioi €-ko zenbatekoa gainditu zuten. 3.21 grafikoa elikagaien esportazioek eta inportazioek izan duten bilakaera erakusten du: Nafarroako


kanpo-merkataritzan elikadura-sektoreak hazkunde esanguratsua izan duela ikus daiteke bertan, **sektorearen superabit komertzial gorakorrarekin batera**, eta 2014. urtean 400 milioi € ingurukoa izan daiteke, 2004ko defizit txikiaren aurrean.

3.20 grafikoa
Ondasunen esportazioak Nafarroan: sektoreen ekarpena (% u/u)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta


3.21 grafikoa
Elikagaiak Nafarroan: esportazioak, inportazioak eta saldoa 2004tik 2014ra* (milioi €)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta. *2014an, abuztura arteko aurreko 12 hilabeteak


Nafarroako inportazioek abuztu arte izan duten bilakaera aztertuta (ikusi 3.22 grafikoa), **2014rako % 7,9ko hazkunde**a ondoriozta daiteke, esportazioetan baino zertxobait txikiagoa, eta hemen ere **automobilgintzaren sektorea** izan da protagonista nagusia (bi urtez ererikoa izan ondoren, 4,6 puntu portzentualeko ekarpena egin du), urte arteko tasan % 15 hazi baita; halaber, **ekipo-ondasunak** ere nabarmendu behar dira (4,5 p.p.), urte artean % 24 hazi baitira. Lehen ere azaldu dugunez, inbertsioa suspertzen ari dela adieraz dezake bilakaera horrek, besteak beste, kanpoko salmenten bilakaera onari esker.

3.22 grafikoa
Ondasunen inportazioak Nafarroan: sektoreen ekarpena (% u/u)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.23 grafikoa
Nafarroa eta Espainia: eskualdeen arteko merkataritza (milioi €, UEEZ)




Iturria: BBVA Research, Cepreden oinarrituta.

Eskualdeen arteko merkataritzari buruz eskuartean ditugun datuetan oinarrituta (2014ko lehen sei hilekora arte), **Nafarroak Espainiako gainerako eskualdeetara egindako salmentak** indartzen ari direla egiazta daiteke, azken urtean metatutakoaren arabera, % 7,4 u/u (ikusi 3.23 grafikoa); inportazioetan, berriz, igoera txikiagoa izan da, % 2,7 u/u; dena den, bi magnitudeak urrun daude 2008ko maila absolutuetatik.

Laburbilduz, **kanpo-eskariak Nafarroaren hazkunderari ekarpen positiboa egiten jarraituko duela** aurrean daiteke, azken urteotan gertatutakoaren ildotik (ikusi 3.3 grafikoa); eta Espainiara nahiz kanpoko merkatuetara zuzendutako **ondasunen esportazioen goranzko bilakaerak** eta, neurri txikiagoan, zerbitzuenak lagundu dute horretan.

3.24 grafikoa

Nafarroako kanpo-salmentek hazkunderari egindako ekarpena, helmugaren arabera (% h/h, UEEZ)




Iturria: BBVA Research, Ceprede-n eta Datacomex-en oinarrituta

Oro har, **2013. urtean, Espainiara egindako salmentek urtearen bigarren zatian izan zuten susperraldia onuragarri gertatu zen Nafarroako kanpo-salmentetarako (ikusi 3.24 grafikoa); 2014aren amaieran, berriz, mesede egingo die salmenten dinamismo handiagoak, batez ere EBra zuzentzen direnak.** Aurrera begira, hazkunde globala eta Espainiakoa bizkortzeak eragingarri izan beharko luke gerora ere Nafarroako kanpo-sektorearentzat.

Turismoari dagokionez eta sektore horrek beste eskualde batzuetan baino pisu txikiagoa duen arren, **Espainiako batez bestekoa baino bilakaera hobea erakutsi du, bidaztien ikuspuntutik eta, bereziki, ostatu-gauen ikuspuntutik** (ikusi 3.25 grafikoa). 2013an, ostatu-gauen hazkundera % 2,0koa (u/u) izan zen (Espainian, % 1,7koa); eta, 2014an, berriz, % 11,2koa izan da, irailera arteko datuen arabera, betiere; aurreikusitakoaren arabera, urtea % 8,5eko hazkunderarekin amaitu daiteke, eta Espainian % 2,4koa izan da soilik; **espainiar bezeroak (% +1,3 h/h batez beste 2014an) nahiz atzerrikoak (% +3,7 h/h)** gehiago izan direlako gertatu da hori, azken hauek foru-erkidegoan ostatu-gau guztien % 20 osatzen dutelarik. Hazkunde horrekin batera gertatu da **hotelen prezioen doikuntza handiagoa, Espainiakoarekiko eta EAEkoarekiko 8 p.p.-tik gorakoa**, baina ez Aragoikoa bezain nabarmena eta, gutxi asko, Errioxakoaren parekoa (ikusi 3.26 grafikoa).

3.25 grafikoa:


Nafarroa eta Espainia: ostatu-gauak (% h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.26 grafikoa

Espainia eta iparraldeko autonomia-erkidegoak: hotelen prezioak (2008=100)



Iturria: BBVA Research, INE-n oinarrituta

Lan-merkatua: pixkana suspertzen, 2013ko joera negatiboaren ostean


2013. urtearen ezaugarrietako bat Nafarroako **lan-merkatuan doitze-prozesuak jarraitzea izan zen, eta oro har Espainiakoa baino zorrotzagoa izan zen gainera**. Esaterako, urte arteko afiliatuen galera % 1,7koa izan zen Nafarroan, eta Espainian, berriz, % 0,9koa. **Hala ere, eta bizkortzen ari den ekonomia bati dagokion legez, afiliatu kopuruaren murrizketari dagozkion tasak murriztu egin ziren pixkana, eta hiruhilekoen arteko aldakuntza-tasak errekuperatu egin ziren (UEEZ), urtearen azken aldera positiboak izateraino** (ikusi 3.27 grafikoa). Joera horri eutsi egin zaio orain arte 2014an, baina afiliazioaren gorakadak joera hori leundu egingo du jada 2014ko hirugarren hiruhilekoan, eta hazkundea txikiagoa izango da Nafarroan (hiruhileko arteko hazkundea, batez beste, % 0,36koa h/h; eta Espainian, % 0,6 h/h); aurreikuspenen arabera, horrelaxe jarraituko du urte amaiera bitartean. Ildo horretatik, erregistratutako langabezia 2013an Nafarroan gehiago hazi bazen ere (% 4,8% vs % 2,6% Nafarroan u/u), 2012ko bigarren hiruhilekoan 50.000 pertsonako kopurua gainditu ondoren, kopuru horretatik behera dago 2014ko bigarren hiruhilekotik; gainera, murrizketa hori areagotu egin da urtean zehar, urtarokotasuna zuzenduta, hiruhileko batez bestekoan, eta 8 puntu portzentualeko erorikoarekin itxi daiteke urtea.

Biztanleria Aktiboaren Inkestak, INEk argitaratutakoak, erakusten duen jokabidearen arabera, **Nafarroak termino absolutuetan 8 puntu portzentualetik gorako diferentzialari eutsi dio langabeziaren atalean 2014ko hirugarren hiruhilekoan, enplegua berreskuratzeko bidea motelxeagoa den arren**: urtaroen araberrako aldakuntzak zuzendu ondoren, langabezia-tasa % 18,4raino hazi zen Nafarroan 2013ko hirugarren hiruhilekoan, eta, gero, modu esanguratsuan murriztu zen 2014ko hirugarren hiruhilekora bitartean (gaur egun, 3 p.p. azpitik; ikusi 3.28 grafikoa). **Neurri batean, 2014an Nafarroan biztanleria aktiboan murrizketa handiagoa izan delako** gertatu da hori, 2014ko hirugarren hiruhilekoan Espainian izan dena bikoiztu egiten baitu (% -1,05 u/u), 2010etik Nafarroako biztanleria aktiboak erakutsi zuen jokabide hobea desagerrarazteraino.

Sektoreei dagokienez, zerbitzu pribatuek enplegua hobetzen lagundu dute 2013ko laugarren hiruhilekoaz goertzik, bai eta okupazioa suntsitzen ere, 2012ko hirugarren hiruhilekoan eta 2013an (Ikusi 3.29 grafikoa). Hala ere, eraikuntzan (azken bi hiruhilekoetan) eta industrian (2014ko hirugarren hiruhilekoan) ikusten hasi garen hobekuntzak hein txiki batean baino ez du konpentsatzen zerbitzu pribatuek duela gutxi izan duten ahulaldia, eta urtarokotasuna kanpoan utzita BAIk emandako datuen arabera, eroriko txiki bat gertatu da okupatuaren artean.


Enpleguaren % 3,2ko uzurtzea, kontabilitate nazionalaren arabera, leundu egingo zuen 2013an soldatapekoen ordainsari erreala % 1,2 murriztu izanak, 2009an behatutakoaren kontrara (Ikusi 3.30 grafikoa). Horrela, 3.31 grafikoa erakusten duenez, Nafarroako lan-kostuek moderazio-joera bat islatzen dute azken bi urteotan, eta Espainiakoarekiko diferentziala areagotu egiten du horrek. 2007tik, lan-kostu guztiak 4 p.p. gutxiago haziko ziren Nafarroan Espainia osoan baino, eta baita industriaren presentzia handia duten mugako eskualdeekin alderatuta ere (Euskadin baino 6 p.p. gutxiago, edo Errioxan baino 3 p.p. gutxiago, adibidez). Lehen adierazi dugunez, hori lagungarri izan daiteke sektore esportatzailearen susperraldi erlatiborako.

3.27 grafikoa
Gizarte Segurantzako batez besteko afiliazioa (% h/h, UEEZ)




Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzaz oinarrituta

3.28 grafikoa
Langabezia-tasa (% h/h, UEEZ)




Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.29 grafikoa
Nafarroa: enpleguaren hazkundea eta sektoreen ekarpena (p.p, UEEZ)




Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.30 grafikoa
Nafarroa: soldata errealak, enplegua eta BPG (aldakuntza %, UEEZ datuak)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.31 grafikoa

Lan-kostuei buruzko hiruhileko inkesta (2007=100)

Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta


Industria: suspertzen, baina kanpoko ziurgabetasunari lotuta

Nafarroako BPG eskaintzaren ikuspegitik aztertuz gero, argi ikusten da zerbitzu pribatuek eta, bereziki, industriak azken garaiotako jardueraren bilakaeran izan duten garrantzia, eraikuntza-sektorearen uzurtzea gertatu den ingurune honetan, batez era berorren balio erantsi gordinagatik (ikusi 3.32 grafikoa). Ildo horretatik, **2013ko hirugarren hiruhilekotik aurrera industria-produkzioaren indizea Estatuan baino azkarrago hasi zen bizkortzen** (ikusi 3.33 grafikoa) eta, urtebetean, hiruhileko hazkundeak, batez beste, % 2,3ra iritsi ziren, nahiz eta 2011n % -2koa edo 2012an % -1,3koa izan. 2014ko hirugarren hiruhilekoko uzurdura kontuan hartuta ere (% -3,2), urte arteko hazkundeak positiboa izaten jarraitzen du (% +2,6), eta positiboa izan daiteke hurrengo hiruhilekoetan ere, Nafarroako esportazioen helmuga nagusi diren herrialdeetan kontsumitzaileen konfiantzari eragin diezaioketen arrisku geopolitikoak edo finantzarioak gauzatzen ez badira.

Sektorez sektore, **kontsumo-ondasun iraunkorren suspertzea** nabarmendu da, urte hasieran Volkswagen etxeak Landaben industrialdean duen lantegian Polo auto berriaren produkzioari hasiera emateak babestuta. Gainerako sektoreek bilakaera moderatuagoa izan dute, eta bitarteko ondasunen eta ekipo-ondasunen indizea 2010eko mailetatik behera kokatu da (ikusi 3.34 grafikoa); energia-sektorea ere erruz murriztu da azken urteotan, ziklo konbinatuko produkzio txikiagoagatik, besteak beste.


Espainiaren diferentzialak aztertuz gero (ikusi 3.35 grafikoa), argi ikusten da Nafarroako industriak jokabide hobea izan zuela 2013an, erorialdi txikiagoak izan baitzituen jardueraren arloan eta, bereziki, enpleguan; eta, itxura batean, oro har Espainian behatutakoa baino irabazi txikiagoa adierazten du horrek produktibitatean. Aldiz, 2014ko urte honetan, industria-produkzioaren indizea jarduera erlatibo handiagoa erakusten ari da, nahiz eta gorakada hori industria-enpleguaren arloko hazkunde diferentzialekin ez den islatu; beraz, Nafarroaren kasuan, produktibitatea gehiago ariko litzateke hazten.

3.32 grafikoa
Nafarroako BPG, eta hazkunderari egindako ekarpenak, eskaintzaren arloan * (% , u/u)




Iturria: BBVA Research, IEN-n oinarrituta. 2014koak datuak 1S14

3.33 grafikoa
Nafarroa eta Espainia: industria-produkzioaren indizea (IPI, %, h/h, UEEZ)




Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.34 grafikoa
Nafarroa: IPI sektoreen arabera (1H2011=100)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.35 grafikoa
Nafarroaren eta Espainiaren arteko hazkunde-diferentziala (% , u/u)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2014-2015erako agertokia: Nafarroako ekonomia berriz hazkunde jarraituaren bidean

Atal honen hasieran aurreratu dugunez, **aurreko Zertan den Nafarroa aldizkarian, 2013ko apirilean, iragarritako suspertze ekonomikoa berretsi da.** Nafarroa zikloaren hedapen-fasera itzuli dela islatzen dute eskura dauden adierazleek, eta Espainiako gainerako lurraldeetan baino indar handiagoz, gainera. 2014ko lehen bi hiruilekoetan Nafarroako ekonomiak izandako azelerazio indartsua apur bat ahuldu da urteko bigarren sei hilekoan, eta horixe adierazten dute suspertzeari buruz sortutako zalantzek eta ekonomiaren euskarri diren zenbait faktoreen ahultasunak. Dena den, **Nafarroako BPG 2014an % 1,4 handitzea espero da, eta % 2,2 2015ean, Espainian espero den hazkunderaren gainetik bi kasuetan.**

Hala ere, kopuru horiek duela hiru hilabetekoak baino apur bat okerragoak dira. 2014. urteari dagokionez, hainbat faktorek arrazoitzen dute aurreikuspenaren doikuntza. Lehenik, **MICA-BBVaren Nafarroako ereduaren bidez eskualdeko koiuntura-adierazleen multzoak islatzen duenez, hazkundera aurreko hiruhilekoetan behatutakoa baino txikiagoa** izan daiteke hirugarren hiruhilekoan, aurreko aurreikuspenen joera gorakorra hautsiz (ikusi 3.2 grafikoa). Jarduera ekonomikoari buruzko **BBVA inkestak ere (ikusi 3.36 grafikoa) ekonomia hirugarren hiruhilekoan moteldu egin dela adierazten du**, laugarren hiruhilekorako ikuspegiak positiboak diren arren.

Hiruhilekoan egin beharreko doikuntza horren atzean, funtsean, bi faktore daude. Alde batetik, kanpo-sektorea moteldu egin da, inguruan behatutako zailtasunekin bat etorrira. Zehazki, eurogunean 2014rako egindako hazkunde-aurreikuspenak dezelerazioa izan du, eta hiru hamarreneko jaitiera izan du hazkunderaren berrikuspena egitean, esportazioetan espero zen azelerazioa murriztuz. Bestetik, Gizarte Segurantzako afiliazioak izandako hazkunderaren azelerazio azkarra eten egin da hirugarren hiruhilekoan, eta lanpostuen sorrerak behera egin du, aurreko hiruhilekoekin alderatuta.

Hala ere, barne-eskariaren susperraldiak aurrera jarraitu du. Alde batetik, kontsumo pribatuak gora egiten jarraitu du, ziurgabetasunaren murrizketaren, zerga-pizgarrien eta errenta eskuragarria hobetzearen ondorioz. Eta inbertsioak ere joera positiboa erakutsi du, konfiantza eta enpresen finantziario-baldintzak hobetu direlako. Beste aldetik, eraikuntza-sektorea egonkortzen ari da, azken urteetako doikuntzaren ondoren. Beraz, eskualdeko ekonomiaren emaitzak positiboak dira, eta 2014. urtean, oro har, hazkundera % 1,4koa izan daiteke.


Gainera, hainbat faktorek adierazten dute **hiruhileko honetan behatutako moteltzea behin-behinekoa izango dela eta 2015ean hazkundera gora egingo duela berriro Nafarroan.** Euroguneako jarduera bizkortu egin da, duela hiru hilabete espero baino erritmo motelagoan izan bada ere. Zehazki, BBVA Research-en ustez $-R-VAR^{18}$ ereduaren bitartez, EBko BPGren hazkundera izandako sei hamarreneko murrizketak bost hamarren murriztuko du Nafarroako BPG. Europarako hazkunde-aurreikuspen txikiago horri erantzuteko, **EBZ-k moneta-politika oldarkorragoa abiarazi du**, kreditua hedatzeko eta sustatzeko neurriak barnean hartzen dituen. Horren ondorioz, enpresak eta kontsumitzaileak finantzatzeko interes-tasek behera egin dute, eta hori ere barne-eskaria indartzeko lagungarri da. Gainera, neurri horiek euroaren eta dolarraren arteko ganbio-tasaren depreziazioa eragin dute baita ere, eta 2014an eta 2015ean, batez beste, depreziazioa % 10 ingurukoa izango dela aurreikusten da. R-VAR ereduaren arabera, puntu erdi inguruko eragin positiboa izango luke horrek Nafarroako ekonomian, eta horrek Ekonomia eta Diru Batasuneko (EDB) jarduera txikiagoaren eragina orekatuko luke. Azkenik, Espainian, oro har, hazkundera izandako azelerazio txikiagoak Nafarroako ekonomiara zuzendutako eskaria ere murriztu du, eta horrek ere azaltzen du azelerazioa aurrez espero zena baino txikiagoa izatea.

Bestalde, **desoreken zuzenketan egindako aurrerapenei esker, une honetan Nafarroa da desoreka gutxien dituen eskualdea**, eta nahiko egoera ona agertzen du etxebizitzaren gain-erregulazioari, zerga-desorekei (gobernu zentralarekin egin beharreko hitzarmenen menpe, betiere) edo enpresen eta familien zorpetzeari dagokienez (ikusi 3.37, 3.38 eta 3.39 grafikoa).

18: Ikusi 2. errekoadroa, *Situación España*, hemen eskuragarri.

3.36 grafikoa


Nafarroa: Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta (muturreko erantzunen saldoa, %) eta BPGren aurreikuspenak, MICA ereduaren arabera (% , h/h)



Iturria: BBVA

3.37 grafikoa


Autonomia-erkidegoetako Desoreken Adierazle Sintetikoa (DAS)



Iturria: BBVA Research, Estatuko iturrietan oinarrituta

3.38 grafikoa


Beste Sektore Egoiliarren (BSE) zorpetze-ratioaren aldaketa (BSEen kredituen eta gordailuen arteko saldo garbia, BPG nominalaren gaineko %tan)



Iturria: BBVA Research, BdE eta INEn oinarrituta

3.39 grafikoa

BPG, landun bakoitzeko (Espainia = 100), eta langabezia-tasa (2013)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Langileko produktibitatea hobetzeko joerari eustea eta lan jarduera areagotzea, Nafarroako ekonomiaren erronka nagusiak

Datozen urteetan, Nafarroako ekonomiak baditu zenbait erronka aurrez aurre. Beroriek aztertzeko, erabilgarri gerta daiteke biztanleko BPGren faktorekako deskonposaketa hau:

$$[\text{EC. 1}] \quad BPG_{pc} \equiv \frac{BPG}{Okup} * \frac{Okup}{Akt} * \frac{Akt}{Pop(16-65)} * \frac{Pop(16-65)}{Pop}$$

Identitatearen lehen osagaia **produktibitatea** da (BPG landun bakoitzeko); bigarrena lan-merkatuaren egoeraren adierazlea da, **okupazio-tasa** (landunak zati populazio aktiboa); hirugarrena, berriz, lan-merkatuari dagokion partaidetza-tasa da, **jarduera-tasa** (biztanle aktiboak zati lanerako adinean dagoen populazioa); eta, azkenik, **osagai demografiko bat** (lanerako adinean dauden biztanleriaren ehunekoa populazio osoarekiko).

3.40 grafikoak deskonposaketa horren emaitzak adierazten ditu, Espainiako ekonomia orokorrarekin alderatuta. Hauxe da ondorio nagusia: **Nafarroak etengabe hobetu du Espainiarekiko posizio erlatiboa biztanleko BPGren esparruan 90eko hamarkadaren erdialdetik**. Prozesu horretan, bi abantaila nabarmendu dira: **landun bakoitzeko BPGren hazkundera Espainiako batez bestekoa baino handiagoa izan da laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik, eta lan-merkatuak enplegu-tasaren bilakaera hobea ahalbidetu du** krisi garaian. Aldiz, mendearen hasieratik, jarduera-tasak joera negatibo erlatiboa hartu du, 1980tik 90eko hamarkadaren erdialdera arte izandakoaren ildotik. Faktore demografikoa, bestalde, Espainiako batez bestekoaren inguruan kokatzen da.


Nafarroako ekonomiaren produktibitateak, 1998 eta 2000 artean Espainiako batez bestekoaren azpitik kokatu zenak, **hazkunderako joera hartu du ordutik, eta azken bosturtekoan, batez beste, % 108koa izan da, eta horixe da Nafarroako ekonomiak biztanleko BPGn duen abantailaren oinarri nagusia**. I+G alorrean egindako ahalegin jarraitu handiagoak edo sektore teknologikoetan duen enplegu-proportzio altuagoak giltzarri dira adierazle horren egungo nahiz etorkizuneko bilakaerarako.

Horrez gain, **enplegu-tasaren maila erlatibo ona agertzen du Nafarroak**, eta % 110 arte handitu da azken bosturtekoan. Joera horren pean, ordea, jarduera-tasaren jokaera aldakorra ikus daiteke: Espainiakoaren batez bestekoaren gaineratik egon da beti, baina beheraldi luzeak izan ditu 1980tik 1994ra (% 123tik % 105era jaitsi zen), eta baita krisi garaian ere (2007ko % 115etik 9 p.p. jaitsi da), nahiz eta 1993ko eta 1999ko atzeraldien ondoren bizkor suspertu zen, % 105etik % 118ra igaro baitzen.

Beraz, azkeneko hedapen-fasean, Nafarroak enplegu-tasan eta jarduera-tasan zuen aldea murriztu egin zen, eraikuntzaren boom-aren eragin txikiagoarengatik edo turismoaren hazkunde txikiagoarengatik; aldiz, krisi garaian, eraikuntzako enpleguaren pisu txikiagoaren nahiz giza kapitalaren maila handiagoaren ondorioz, enplegu gutxiago suntsitu da; hala, jarduera-tasaren murrizketa handiagoarekin batera, langabezia-tasaren bilakaera ez da hain negatiboa izango. Azkenik, demografiari dagokionez, lan egiteko adinean den Nafarroako populazioaren ratioa egonkor mantentzen da populazio osoarekiko, Espainiako baino apur bat beherago, eta azken bi urteetan populazio-galera izan da, atzeritarren irteeraren ondorioz.

3.40 grafikoa


Biztanleko BPGren deskonposaketa Nafarroan (Espainia =100)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.41 grafikoa

BPGren aurreikuspenak eta hazkundera autonomia-erkidegoetan (%)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Nafarroako ekonomiak aurrez aurre dituen erronka hauek neurriak eskatzen dituzte araudi mailan. Lehenik eta behin, **enplegu-politika aktiboen** erreformak erkidego autonomoen emaitzen arabera baldintzatzen ditu baliabideak. Hortaz, erakundeek ere eskumenak baliatu behar dituzte emaitzak neurtu eta gardentasunez agertzeko.

Gainera, **Nafarroak merkatu-batasunaren alde egiten duten neurrien prozesutik onura garrantzitsuak lor litzake**, enpresak erkidegoan jardun daitezten burutu beharreko eginbideak sinpletuz. Zentzu horretan, badira hobetu daitezkeen alorrak, hala nola sektore turistikoaren erregulazioa edo merkataritzako ordutegiena, baina hobekuntza hauek beste zenbait sektoretan ere gertatu behar dira, enpresen jardun-kostuak gutxitzeko. Besteak beste, *Situación España*¹⁹ aldizkarian aipatuenez, Espainiak zerbitzuen alorreko araudian praktika egokienak ezarri izan balitu lehenago, % 20 inguru handiagoak ziratekeen bere esportazioak. Araudian hobekuntzarako tarte handia dagoenez, kanpo-sektorearen bultzada esanguratsua espero liteke, zerbitzuen merkaturan lehia handitzeak lagunduta.

Beraz, agerkari honen azken edizioan aipatutako erronkek, hala nola produktibitate-irabaziak lortzea, lehiakortasunaren eta I+G alorreko inbertsioen bidetik aurrera jarraitzea, esportazioen dibertsifikazioa areagotzea eta kontu publikoak finkatzea, bere horretan dira. Laburbilduz, etorkizunean biztanleko BPGren hazkunde sendo, egonkor eta jarraitua bermatzeko, eskualdeak hiru atal nagusitan egin behar du indar: lehenik, funtsezkoa da indarrean dirauten desorekak konpontzea, batik bat lan-merkatuan eta zorpetzean. Bigarrenik, giza kapitala, kapital fisikoa nahiz teknologikoa hobetzeko politikak ezarri behar dira. Eta hirugarrenik, eskualdea barne- zein kanpo-inbertsiorako erakargarriago egingo duten neurriak hartu behar dira.

19: Ikusi 2014ko bigarren hiruhilekoko *Situación España*, hemen eskuragarri: https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/2014/05/1405_Situacion_Espana1.pdf

3.1 koadroa

Espainia: BPGren hazkudean AA. EE.ko. (%)

Autonomia Erkidegoa	2011	2012	2013	2014(p)	2015(p)
Andaluzia	0,2	-2,1	-1,5	1,3	1,8
Aragoi	-0,2	-1,9	-1,2	1,3	2,2
Asturias	0,4	-2,1	-2,1	0,8	1,3
Balearrak	1,0	-0,8	-0,4	1,6	1,7
Kanariak	0,4	-1,4	-0,4	2,1	2,2
Kantabria	-0,8	-0,9	-1,9	0,9	1,7
Gaztela eta Leon	1,1	-2,0	-2,1	1,3	2,2
Gaztela Mantxa	0,1	-3,1	-1,1	1,0	2,3
Katalunia	-0,4	-1,3	-0,8	1,3	1,8
Extremadura	-0,9	-2,8	-1,4	1,3	2,2
Galizia	-0,5	-0,9	-1,0	1,2	2,2
Madril	0,7	-1,6	-1,2	1,7	2,5
Murtzia	-1,0	-2,0	-1,7	0,7	2,3
Nafarroa	1,4	-1,6	-1,5	1,4	2,2
EAE	0,2	-1,3	-1,9	1,1	1,8
Errioxa	0,9	-2,0	-1,8	1,4	2,4
Valentzia	-1,1	-1,6	-0,8	1,3	2,0
España	0,1	-1,6	-1,2	1,3	2,0

Aurreikuspenen itxiera data: 2014ko azaroak 30.
Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta.

1. errekoadroa. Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta Nafarroan, 2014ko 3. hiruhilekoan: hirugarren hiruhilekoan eten egin da ekonomiaren suspertzea, baina laugarrenean itzul daiteke

2010eko bigarren hiruhilekotik, BBVA Research-ek eskualdeko ekonomia aztertzeko tresna garrantzitsua du Nafarroarako, hiru hilean behin argitaratzen dena. **Jarduera ekonomikoari buruzko BBVAren inkestak, bankuaren bulego-sareko langileei zuzendutakoak,** bulego bakoitzaren eragin-eremuan jarduera-aldagai nagusiek izan duten bilakaerari buruz eta epe laburrera begira duten aurreikuspenei buruz galdetzen du.²⁰

2014ko hirugarren hiruhilekoari buruzko inkestaren emaitzek hiruhileko honetan Nafarroako jarduera ekonomikoak okerrera egingo duela adierazten dute (erantzunen saldo garbia 24 p.p.-koa izan da, aurrekoan izandakoaren erdia), baina hurrengo hiruhilekoan jarduera dinamizatu egingo dela aurreikusten da; bat dator hori BBVA Research-ek eskualderako adierazitako agertokiarekin (ikusirik grafikoa testu orokorrean).

Inkesta egin dutenen % 22k uste du azken hiruhilekoan jarduerak gora egin duela, aurreko hiruhileko % 41aren aurrean. Jarduerak behera egin duela uste du inkesta egin dutenen % 24k, aurreko hiruhilekoan kopuru hori % 1ekoa zen arren; halaber, gehiengoak egonkor ikusten du jarduera (inkesta egin dutenen % 54). Beraz, **erantzunen saldo garbia negatiboa da hiruhileko honetarako, aurreko hiru hilekoetan positiboa izan ondoren. Horrek adierazten du suspertzea geldoa dela eta zenbait zalantza agertzen dituela.** Izan ere, erantzunen saldo garbia duela urtebeteko maila berean dago, baina 11 p.p. dira hurrengo hiruhilekorako jarduera egonkortu egingo dela aurreikusten dutenak (% 51).

Hurrengo hiruhilekorako aurreikuspen ekonomikoak onak dira: inkestari erantzun dioten % 37k uste du jarduerak hobera

egingo duela, baina % 1etik % 13ra igo da jarduerak okerrera egingo duela uste dutenen ehuneko. Kasu honetan, % 50 inguruk oraindik ere uste du jarduerak egonkor jarraituko duela (saldoa: +24 p.p., ikusi R.1 koadroa).

Adierazle guztiek, eraikuntzarenak eta sektore horretako enpleguarenak izan ezik, okerrera egin dute hiruhilekoan. Joera hori arinagoa da kanpo-eskariarekin lotuago dauden adierazleetan (turismoak eta esportazioek erantzun-saldo positiboan dituzte, 42 p.p. eta 21 p.p., hurrenez hurren), eta zerbitzuetako enpleguak, **inbertsioak (sektore guztietan), eskari-zorroak eta salmentek izan dute bilakaera okerrera hiruhilekoan. Urte arteko terminoetan, hala ere,** azterketa konparatiboak hurrengo hiruhilekorako aurreikuspenek hobera egingo dutela adierazten du, bai eta enpleguak, industria-ekoizpenak eta esportazioek ere.

Egungo egoera 2014ko bigarren hiruhilekokoa baino okerragoa izan arren, industriako eta zerbitzuetako inbertsioaren, eskari-zorroaren eta enpleguaren adierazleek erantzun positiboan saldo garbiari eutsi diote industrian nahiz zerbitzuetan 2014ko hirugarren hiruhilekoan ere, eta inkestari erantzun dioten gehienek egoerak egonkor jarraituko duela uste dute.


Urte arteko ikuspegitik, inbertsioak hobera egin du industriaren eta eraikuntza berrien sektoreetan, eta okerrera lehen sektorean eta zerbitzuetan. Antzeko egoera hautematen da enplegu-adierazleetan ere; hala ere, inkestari erantzun dioten arabera, zerbitzuen sektoreko enpleguaren egoera apur bat hobea da.

Azken batean, Nafarroako jarduera ekonomikoari buruzko BBVA inkestak suspertze progresiboaren agertokia berresten du, zailtasunak zailtasun (ikusirik R.1 grafikoa).

20: Inkestari buruzko zehaztasun gehiago ezagutzeko, ikusi: Espainiako egoera, 1. errekoadroa, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVAren Inkesta. Ekonomiaren egoeraren jarraipen goiztiarra egiteko tresna bat. Espainiako egoera, 2014ko 2. hiruhilekoa. Hemen eskura daiteke: <https://www.bbvarresearch.com/public-compuesta/situacion-espana/>

Sektorekako adierazleek islatzen dutenez, kanpo-
eskariak (esportazioak, turismoaren laguntzaz) eta
zerbitzuek sustatu dute nagusiki suspertze hori,
eta indar txikiagoa izan dute industria-sektoreak
eta eraikuntzaren sektoreak.

R.1.1 grafikoa
**Nafarroako jarduera ekonomikoari buruzko BBVAren
inkesta. Erantzunen saldoak. Hautatutako aldagaiak**



Iturria: BBVA

R.1 koadroa

Jarduera ekonomikoari buruzko inkesta. Nafarroako emaitza orokorrak

(erantzunen %)	2014ko 3. hiruhilekoan			2014ko 2. hiruhilekoan			2013ko 3. hiruhilekoan		
	Handitu	Egonkor	Txikitu	Handitu	Egonkor	Txikitu	Handitu	Egonkor	Txikitu
Jarduera ekonomikoa	41	57	1	35	61	4	11	65	24
Hurrengo hiruhilekorako aurreikuspena	49	50	1	43	56	1	19	66	15
Industria-ekoizpena	16	82	1	20	74	6	6	68	26
Eskari-zorroatik	35	64	1	24	72	4	10	61	29
Stock maila	10	88	1	9	83	9	8	70	22
Lehen sektoreko inbertsioa	22	69	9	16	79	5	10	68	22
Industriako inbertsioa	13	75	12	4	86	11	0	71	29
Zerbitzuetako inbertsioa	30	68	1	38	56	6	12	55	33
Eraikuntza berriak	12	74	14	12	61	26	5	51	44
Industriako enplegua	26	59	15	14	70	16	0	60	40
Zerbitzuetako enplegua	46	43	11	26	61	14	17	49	34
Eraikuntzako enplegua	0	73	27	4	61	36	0	53	47
Prezioak	2	78	20	9	78	13	0	71	29
Salmentak	39	55	6	18	73	9	7	53	40
Turismoa	49	50	1	15	84	1	25	63	12
Esportazioak	32	67	1	32	66	1	4	82	15


(*)Muturreko erantzunen saldoa
Fuente: BBVA

2. errekoadroa. Esportazioen dibertsifikazioa, eskualdeen hazkundera azaltzeko faktore²¹

Ondasunen esportazioek BPGren gainean duten pisua²² nabarmen handitu da autonomia-erkidego gehienetan 2009. urteaz geroztik, eta, batez beste, % 20tik gorakoa da (ikusi R.2.1 grafikoa). Lan-kostuak murrizteko ahaleginak, ekoizpenean egindako hobekuntzak eta esportazio espainiarrak goraka ari diren merkatuetara dibertsifikatzeko garatu duen estrategia izan dira sektorearen hazkunderaren zutabe nagusiak²³, jarduera ekonomikoaren elementu dinamizatzaile nagusi bihurtuta²⁴.

R.2.1 grafikoa

Ondasunen esportazioek autonomia-erkidegoen BPGren gainean duten pisuaren bilakaera²⁵



Iturri: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Koadro honek BBVA Research-en (2014) emaitzak laburtzen ditu, eta helburu nagusia honako hauek zehaztea da: aipatu dugun esportazioen hazkunde horretatik zenbat den kanpo-sektorearen dibertsifikazioaren ondorio, eta zenbatean bultzatu duen prozesu horrek biztanleko BPGren hobetzea, bai krisiaren aurreko aldiari eta bai ondorengoan. Azterketa

horretatik ondorioztatzen diren emaitza nagusiak ondorengo puntu hauetan laburbil daitezke:

- 1. Autonomia-erkidegoen esportazioek dibertsifikatzeko prozesu bat garatu dute, eta prozesu hori areagotu egin da azken 4 urteetan;** horren ondorioz, hazkunde sendoa gertatu da beroietan, bazkide komertzial tradizionalen eskaerak behera egin arren. Prozesu horrek azaltzen du 2009. urtetik autonomia-erkidegoek erakutsitako jokaeraren % 75.
- 2. Dibertsifikazioaren ondorioz esportazioetan gertatutako hazkundeak 0,2 puntu portzentualetan (p.p.) areagotu du urtero biztanleko BPGren hazkundera krisi garaian. Beraz, prozesu dibertsifikatzailea gertatu izan ez balitz, biztanleko BPGren gainbehera % 28 handiagoa izango zatekeen atzeraldiak iraun duen urteetan.**

Nafarroaren kasua

Nafarroako kanpo-sektoreak dibertsifikazio-prozesu esanguratsua bizi izan du. Horri esker, aurre egin du esportazioen helmugaren arabera dibertsifikazioaren mailan, beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta, eta, 2012. urtean, batez bestekoa baino zertxobait beheraxeago kokatu da. Bestalde, **produktuen dibertsifikazioari dagokionez, Nafarroa izan da ahalegin handiena egin duen eskualdeetako bat**, eta, horregatik, esparru horretan egindako aurrerapenak ez dira izan helmuga geografikoaren atalean egindako aurrerapenak bezain nabarmenak.

21: Situación España Primer Trimestre de 2014 argitalpeneko 3. errekoadroan sakonki aztertzen da atal honetan egindako azterketarako erabilitako ereduak. Hemen eskura daiteke errekoadro hori: http://www.bbva.com/KETD/fbin/mult/1402_Situacion_Espana_tcm346-423173.pdf?ts=1222014


22: Eskualdekako zerbitzuen esportazio datuen gabeziaren ondorioz, Aduana-bulegoak emandako ondasunen esportazioetara mugatzen da azterketa.

23: Ikusi IMF (2013) Country Report No. 13/232 <http://www.imf.org/external/pubs/ft/scr/2013/cr13232.pdf>

24: Situación España Cuarto trimestre 2013 argitalpeneko 1. errekoadroan, ekonomia espainiarraren gertaera estilizatuak aztertu dira, eta esportazioak ziklo ekonomikoari aurreratu zaizkiola ikus daiteke bertan. Ikusi: http://www.bbva.com/KETD/fbin/mult/1311_Situacionespana_tcm346-410394.pdf?ts=2812014


25: Uharteak ez dira kontuan hartu azterketa egiteko garaian, zerbitzu-merkatuarekiko mendekotasun berezia dutelako (zerbitzu turistikoak, bereziki) eta horrek energia-esportazioen gain eragina duelako.

R.2.2 grafikoa
Helmugaren araberako dibertsifikazioa²⁶ AAE Eetan (1995-2012)**



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

R.2.3 grafikoa
Produktuaren araberako dibertsifikazioa AAE Eetan. (1995-2012)**



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta


R.2.4 grafikoa ikusi daitekeenez, **helmugan dibertsifikazio-prozesuan, Asia nagusitu da** (Txina, Singapur eta India izan dira esportazioen helmuga nagusiak), **Nafarroako esportazioen % 10 adierazten baitu ia**; horrez gain, 2009. urtetik, % 15etik gorako hazkundeak izan ditu.. **Amerikak** bete duen tokia ere azpimarratu behar da (Brasil, Mexiko eta AEB dira merkataritza-bazkide nagusiak), baina **helmugetan zuen hirugarren**

25: Dibertsifikazioa honako adierazpen honen bidez neurtzen da: $(100-IH)$; IH Herfindhal indize edo adierazlea da, oinarritzat 100 hartuta. Beraz, dibertsifikazio-aldagaiak gora egiteak esportazioen dibertsifikazioa hazi egin dela adierazten du.

tokia galdu du Afrikaren alde, krisia hasi zenetik % 70 inguruko hazkundeak izan arren. Bestalde, nahiko pisu txikia duen eskualdea da Afrika oraindik, baina 1995etik bikoiztu egin du zuen pisua, eta krisia hasi zenetik % 70etik gorako hazkundeak izan ditu. Azkenik, gainerako autonomia-erkidegoetan ikusten denaren ildo beretik, Europara zuzendutako esportazioen pisua murriztu egin da, nahiz eta Nafarroan murrizketa hori beste eskualde batzuetan baino txikiagoa izan den: soilik 3,5 p.p. galdu ditu 2009tik.

Produktuari dagokionez, **dibertsifikazio-prozesua oso garrantzitsua izan da.** R.2.5 grafikoa ikusi daitekeenez, **baliabideen berregituraketa esanguratsua gertatu da. Automobilgintzaren sektoreak pisua galdu du** (13,4 p.p. 1995. urtetik) **ondasun-ekipoen mesedetan**, horiek beren pisua 10 puntu portzentualetan handitu baitute. Bestalde, elikagaiek ere garrantzi handiagoa hartu dute, neurri txikiagoan bada ere (6 p.p. 1995. urtetik).


R.2.4 grafikoa
Ondasunen esportazioen banaketa Nafarroan, eremu geografikoaren arabera



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

R.2.5 grafikoa

Ondasunen esportazioen banaketa Nafarroan, sektore ekonomikoen arabera



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Lehen esandakoaren ildotik, BBVA Research-en (2014), autonomia-erkidegoen dibertsifikazio-prozesuaren etekinak kuantifikatzeko eredu bat eratu da. Hauek dira emaitza nagusiak Nafarroako ekonomiarako:

- 1. Eskualdeko esportazioen dibertsifikazioak** (nagusiki helmugaren arabekoak) **azalduko luke 2009. urtetik berorien % 5,5eko hazkundera urtero** (ikus R.2.6); **aldiz, epe horretan urtero izandako hazkundera % 7,3koa izan da.** Hau da, dibertsifikazio-


prozesua izan da azken bost urteetan esportazioek izan duten hazkunderaren % 76ren bultzatzaile.

- 2. Dibertsifikazioaren ondorioz esportazioek izan duten hazkundera 0,06 puntu portzentualetako ekarpena egin dio biztanleko BPGren urteroko hazkunderari krisi-garaian.** Horren ondorioz, **dibertsifikazio-prozesua garatu izan ez balitz, biztanleko BPGren jaitsiera zazpi aldiz handiagoa izango zatekeen atzeraldi osoan.**

Laburtuz, **eskualdeko enpresek beren produktuak merkatu dinamikoagoetara zuzentzeko erakutsi duten gaitasunak eragin positiboa izan du esportazioen gain, eta nabarmen islatu da hori Nafarroako biztanleko BPGn.** Horren guztiaren ondorioz, **krisialdian bereziki, esportazioek** jokaera bereizgarria izan dute –eskariaren beste osagai batzuek ez bezala–, eta **biztanleko BPGren erorketa moteldu dute.** Nagusiki helmugaren arabera Nafarroak lortu duen dibertsifikazioa handia izan den arren, nazioarteko izaera emateko ahalegina aurrerago eraman daiteke, hala, eskualdearen suspertzen ekonomia sendotu ahal izateko. Alde horretatik, ekonomia garatuen eta garatze bidean daudenen arteko hazkunde-diferentziala baliatu beharko litzateke, diru-zorro efektuaren ondorioz sortutako arrisku-faktorea murriztearekin batera.

R.2.6 grafikoa

Esportazioen hazkunderari urtean batez beste egindako ekarpenak (2009-2012)



Iturria: BBVA Research


3. errekoadroa. Nolako sentsibilitatea du Nafarroak europar zikloaren aurrean? Azterketa bat, BBVA-RVAR ereduaren oinarrituta²⁷

Sarrera

2007. urte aurreko hiru hamarkadetan, Nafarroako ekonomia modu jarraituan hazi zen, urteko % 2,5etik gora batez beste. Oparaldi ekonomiko horretan, **barne-jarduran eragina izan zuten hainbat gertaera exogenok, Nafarroan askotariko ondorioak izan zutenak eta eskualdeari berari zegozkion faktore idiosinkratikoez ere izan zuten zeresanik** (ikus R.3.1 grafikoa).

R.1.1 grafikoa

Nafarroa eta Espainia: BPGren urteko hazkundea (u/u, %)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Errekoadro honen helburua gertakizun horietako batzuek hazkundearen gainean izan duten eragina kuantifikatzea da, bai eta eskualdeen artean ageri den heterogeneotasunari neurri batean azalpen bat ematen laguntzea ere. Horretarako, Europa eta Espainiako eskualde ezberdinen arteko erlazio ekonomikoen eredu aztertze bidea emango duten tresna estatistikoak behar izango ditugu. Horregatik, **eskualde askotan oinarritutako tresna makroekonomiko berri bat dakar lan honek (BBVA-RVAR)**, eta, besteak beste, estatuan edo Europar sortutako *shocken* eraginak eta transmisioa edota autonomia-erkidegoetan

berrietan sortutakoena zenbatzeko bidea ematen du; horretarako, eskualdeen arteko osagai espaziala eta komertziala erabiltzen du.

Aurrez adierazitako hori guztia garrantzitsua da oso, batez ere, argitalpen honetako 2. atalean adierazienez, EDB osoan jarduerak izan dezakeen dezelerazioaren testuinguruan. Emaitzek diote, epe laburrean, **Europako BPGn 1,0 p.p.-ko murrizketa izateak 0,9 p.p.-ko beherakada eragingo duela Nafarroako BPGn**. Aldiz, **euroaren eta dolarren arteko gantio-tasan % 10eko depreziazioa izateak 0,6 p.p.-ko ekarpena egin diezaike eskualdeko BPGri**. Elastizitate horiek agregatu nazionalerako egindako estimazioen ildotik doaz, bi kasuetan hurrenez hurren -0,9 p.p.-ko eta +0,5 p.p.-ko eragina izango bailukete. Azkenik, *shockek* batez beste autonomia-erkidegoetan izango duten eraginean heterogeneotasun apur bat txerta dezake irekitasun komertzialaren mailak. Zehazki, Nafarroaren irekitze komertziala batez bestekoaren gainetik dago, eta agregatu nazionalerako espero direnak baino eragin txikiagoak izatea azal litzake horrek.

Ondorengo atalok erabilitako metodologiari buruzko laburpen txiki bat egiten dute, ondoren emaitzak aurkezteko. Azken zatian, askotariko *shockei* emandako erantzunetan sumatu den heterogeneotasunaren atzean leudekeen zenbait faktoreri buruzko proposamenak bildu dira.

Metodologia eta literaturarekiko erlazioa

Nafarroako eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko interdependentzia aztertze erabilitako eredu, maila globalean eredu makroekonomikoen estimazio metodologian egindako aurrerapenak baliatu dira; zehazki, Pesaran, Schuermann eta Weiner-ek (2004) eta Dees, Di Mauro, Pesaran eta Smith-ek (2005)

27: Azterketa zorrotzago bat ikusi nahi izanez gero, ikusi Situación España, 2014ko laugarren hiruhilekoari dagokiona. Hemen: <https://www.bbva-research.com/public-compuesta/situacion-espana-cuarto-trimestre-2014/>

ekarritako Bektore Autorregresibo Globalei (ingelesezko sigla, GVAR) lotutako garapen metodologikoak. Hain zuzen, BBVA-RVAR Eskualde Anitzetako Bektore Autorregresiboaren eredu bat da, hiru hilean behingoa²⁸, eta, 1980tik 2013ra bitarteko lagina hartuta, BPGren hazkundea eta Espainiako autonomia-erkidegoetako bakoitzaren eta EBren arteko ganbio-tasa errearen aldakuntza erlazionatzen ditu, alde biko harreman komertzialez baliatuz²⁹. Banakako ereduak gerora ahokutzen dira sendotasunez eta modu kohesibo batean, aldi berean aldagai guztietarako pronostikoak eta simulazioak egiteko. Azkenik, eskualdeetako emaitzak bateratuz, Espainiako ekonomiak osotara duen interakzioa ateratzen da³⁰.

Literatura ekonomikoan, askotariko informazioa aurki daiteke ziklo ekonomiko globalen eta nazionalen arteko transmisioen azterketarekin lotuta³¹, eta Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) ekonomiak betetzen duen rola nabarmentzen da, munduko gainerako tokietara *shock*ak esportatzen dituen eragile nagusi gisa. Dena den, **shock horiek hainbat eskualdeetako ekonomietara** (edo nazio barnera) **nola transmititzen diren aztertzen duen lan gutxi dago oraindik**. Beraz eta orain arteko literatura kontuan hartuta, lan honek hainbat alderditan egiten du ekarpena.

Lehenenik, **eredu autorregresibo globalak eskualdeko ekonomiaren azterketara egokitzea proposatzen da**, Vansteenkiste-k (2006) AEBetako higiezin merkaturako eta Ramajok eta bestek (2013) Espainiako kapital-fluxuetarako

planteatutakoaren ildotik. Hala eta guztiz ere, honako ariketa aldagai makroekonomiko nagusietan oinarritzen da (jarduera eta prezioak), Pesaran, Schuermann eta Weiner-en (2004) eta Pesaran eta besteren (2005) eskemari eutsiz eta eskualdeen ikuspegira egokituta.

Lan honen bigarren ezaugarri berezia **eskualde arteko ondasun-merkatutzako matrizeen erabilera da**³², oinarritzat horixe hartuta **gainidentifikazioaren arazoari irtenbidea emateko**; izan ere, eredu hauetako estimazioek arazo horixe planteatzen dute Vansteenkiste-ren (2006) lanetako matrize espazialen erabilerarekiko eta Ramajo eta besteren (2013) lanean euren landutakoen aurrean. Baxter eta Kouparitsas-en (2004) ildotik, ikusi da emaitzarik sendoenak alde biko merkatutzak eskaintzen dituela.

Hirugarrenik, **erantzun-bulkadaren funtzioetan oinarritutako emaitzak lortzeko bidean sakondu da, eta pronostiko-ariketak txertatu**. Horietan lehenoa *shock*aren ortogonalizazioaren ikuspegitik lor daiteke (OIRF), edota orokortutako erantzun-bulkadaren funtzioen ikuspegitik (GIRF)³³, Koop-ek eta bestek (1996) proposatu eta, gero, VAR ereduarekin Pesaran eta Shin-ek (1998) garatutakoaren ildotik. Bestalde, Espainiako edota Europako ekonomiaren askotariko agertokiaren arabera baldintzatu daitezke (edo ez) pronostikoak, eta autonomia-erkidegoen esparruan arrisku-agertokiak lortzeko aukera izan daiteke,

28: Eskualdeko BPG Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) argitaratzen du 1980tik, urtean behin. Ereduaren gaitasuna areagotzeko eta *shock*ak epe laburragoan hautemateko, serieak denboraren ikuspegitik gehiago bereiztea proposatu da, horretarako faktore dinamikoaren eredu bat erabiliz (DFM), MICA-BBVA eredurako Camacho eta Domenech-ek (2010) proposatutakoaren ildotik. Informazio zehatzagoa izan nahi bada, ikusi "MICA-BBVA: A Factor Model Of Economic and Financial Indicators for Short-term GDP Forecasting". Hemen: <https://www.bbva-research.com/en/publicaciones/mica-bbva-a-factor-model-of-economic-and-financial-indicators-for-short-term-gdp-forecasting/>

29: Hashen Pesaran, Til Schuermann eta Scott Weiner-ek (2004) proposatutako bektore autorregresiboaren (GVAR) ereduaren eraikuntzan oinarritutako metodologia honek a priori eredu hauek izaten duten "gainparametrizazioaren" arazoari irtenbide bat ematen dio, eta, aldi berean, hainbat aplikaziotan erabili ahal izateko esparru malgu bat eskaintzen du.

30: Azterketa zehatzago bat nahi izatera, ikusi: Cardoso-Lecourtois, Méndez-Marcano eta Ruiz-Sánchez (2014): "BBVA-RVAR: A Multi-Regional Vector Autoregressive Model for Spain", (argitaratzeko zain).

31: Argigarri gisa, ikusi: Euro Area Policies: Spillover Report for the 2011 Article IV Consultation and Selected Issue, IMF Country Report No. 11/185, eta Menzie D Chinn (2013): Global spillovers and domestic monetary policy, BIS Working Papers, 436 zk.

32: Eskualde-mailako zerbitzuen esportazioen erregistrorik ez dagoenez, erabilitako datuak ondasunen merkatutzara mugatzen dira, eta zerbitzuen esportazioa esanguratsua den eskualdeetan, estimazio txikiak egiteko arriskua izan daiteke.

33: Erantzun-bulkadaren funtzio orokortuen metodologia (GIRF), Koop eta bestek (1996) proposatutakoa, Sims-en (1980) erantzun-bulkada ortogonalizatuen funtzioen (OIRF) aurrean proposatutako alternatiba bat da. OIRF horiek erantzun-bulkadak *shock* ortogonalizatuen serie baten arabera zenbatzea eskatzen dute; aldiz, GIRFek *shock* gisa hartzen dituzte banakako erroreak, eta barnean hartzen dituzte beste *shock*en eraginak, horietan guztietan behatutako distribuzioa ortogonalizazio beharrik gabe erabiliz. Ildo horretatik, OIRFen kasuan gertatzen denaren aurka, GIRFek ez dira aldatzen aldagaien eta eskualdeen exogenotasunaren ordenan izan daitezkeen aldaketekin, hortaz, ereduaren ezaugarriak kontuan hartuta, esparru ideala dira Espainiako ekonomiaren *shock*ak osotasunean aztertzeko.

Doan, Litterman eta Sims-ek (1984)³⁴ proposatutako metodologiari jarraituz.


Emaitzak

Hainbat gertaeraren aurrean Nafarroako BPGn espero daitekeen bilakaera ebaluatzeko, BBVA-RVAR eredia erabiltzen du atal honek. OIRFetatik abiatuta, Europan jardueraren dezelerazioak izan dezakeen eragina eta Nafarroako ekonomiaren gainean euroaren depreziatioak izan dezakeena zenbatzen ahalegintzeko, bi ariketa aurkeztu dira zehazki.

Lehenetik, R.3.2 grafikoak agertoki hipotetiko batek, hots, EDBn BPG espero daitekeena baino % 1 gutxiago hazteak, Espainiako jarduera ekonomikoaren hazkundearen gainean izango lukeen urteko eragin metatua erakusten du. **Europaren testuinguruaren berrikuspen batekiko Nafarroako BPGk duen elastikotasuna unitatetik gertukoa da,** eta konfiantza-tartea (% 90ean) 0,4tik 1,7ra doa. Agregatu nazionalerako espero denarekin (0,9 p.p.) bat dator emaitza, nahiz eta estimazioak konfiantza-tarte estuxeagoa erakusten duen (Espainiarako, tarte hori 0,3tik 1,7ra doa).

R.3.2 grafikoa

BPGn izan dezakeen eragina, EDBn hazkunde ekonomikoaren % 1eko berrikuspena egin osteko lau hiruhilekotan



Iturria: BBVA Research


Eskualdeen ikuspegitik, esportazioen dibertsifikazio geografikoak³⁵ azaltzen ditu, neurri batean, autonomia-erkidegoen arteko aldeak. Nafarroaren kasuan, ondasunen merkataritzan EDBren dependentzia komertziala Espainiakoaren batez bestekoaren antzekoa izateak azalduko luke eragina ere, batez beste Espainia osorako espero denaren antzeko izatea (ikusi R.3.3 grafikoa).

34: Doan, Litterman eta Sims-ek (1984) proposatutako metodologiak egiantz handieneko pronostiko puntuala lortzeko eskema bat eskaintzen digu, agertoki jakin bati lotuta.

35: Azterketa zehatzago bat nahiz izanez gero, ikusi: 3. errekoadroa, Situación España 2014ko lehen hiruhilekoari dagokiona. Hemen: <https://www.bbva-research.com/publicaciones/situacion-espana-primer-trimestre-2014/>

R.3.3 grafikoa

EDBra zuzendutako esportazioen pisua eta BPGn izan dezakeen eragina, EDBn hazkunde ekonomikoaren % 1eko berrikuspena egin osteko lau hiruilekotan




*Erregresiotik kanpo utzi dira Galizia eta Gaztela eta Leon
Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Bigarrenik, R.3.4 grafikoa **dolarraren aurrean euroak % 10eko depreziazioa izateak** jarduera ekonomikoan izango lukeen eragina erakusten du. Agertoki horrek **Nafarroako BPG 0,6 p.p.-tan susta dezake 2015ean**, 0,2tik 0,8ra doan konfiantza-tartearekin (% 90ean).

R.3.4 grafikoa

BPGren gainean izan dezakeen eragina, €/ \$ kanbio-tasan % 10eko depreziazioa izan osteko lau hiruilekotan




Iturria: BBVA Research

Ganbio-tasaren depreziazioak tokiko produktuen prezio-lehiakortasunean irabaziak eragin ahala (esportazioak sustatuz eta inportatutako produktuen erakarmena murriztuz), emaitza horiek, zuzen-zuzenean, eskualdeen irekitasun komertzialarekin lotuta egongo lirateke³⁶ (ikusi R.3.5 grafikoa). Horrela, Espainiako batez bestekoarekiko 16 p.p.-tik gorako irekitze komertzial handigoak (ondasunetan) azalduko luke euroaren depreziazioak Nafarroan agregatu nazionalerako (0,5 p.p.) estimatutakoa baino hamarren bateko eragin handiagoa izatea.

R.3.5 grafikoa

Irekitze komertziala eta lau hiruilekotan BPGn izan dezakeen eragina, €/ \$ ganbio-tasan % 10eko depreziazioa izan ostean



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en eta INEn oinarrituta

Ondorioak

Eskualdeen arteko erlazioak biltzeko eta Espainiako ekonomian, kanpo nahiz barne shocken transmisioa zenbartzeko gai den baliabide bat (BBVA-RVAR) aurkeztu dugu errekoadro honetan. Horretarako, BBVA-RVAR honek zera proposatzen du, eredu autorregresibo globalei buruz dagoen literatura eskualdeen ikuspegian oinarritutako Espainiako ekonomiaren azterketara egokitzea; eta, horrez gain, emaitzak hedatzen ditu, *shocken* ortogonalizazioaren ikuspegitik eta askotariko agertokiaren pronostikoetara.

36: Irekitasun komertziala ondasunen esportazioen eta inportazioen baturaren eta eskualdeko BPGren arteko ratiotzat hartu behar da.

Errekoadroan azaldu ariketen emaitzetan topa daiteke i) **dinamismo txikiagoko Europa baten agertokiak Nafarroako BPGk unitatetik gertuko elastikotasuna izatea ekarriko lukela, batez beste**; bigarrenik eta aurkako zentzuan, ii) **euroaren deprezioak eragin esanguratsua eta positiboa du Nafarroako jarduera ekonomikoan**. Zehazki, dolarraren aurrean euroak bere balioa 10 p.p.-tan galtzeak 0,6 p.p. inguruko eragina luke eskualdeko BPGn. Eta bi gertaera horien aurrean, iii) **Nafarroak Espainiaren osokoaren antzeko elastizitateak erakusten ditu**. Dena den, ikusten da iv) **kanpoko sektorearekiko esposizio mailak eta EBko merkataritzarekiko dependentziak azalduko lituzketela agregatu nazionalarekiko, eta beste autonomia-erkidegoekiko, dituen alde marjinalak**.

Erreferentzia bibliografikoak

BBVA Research (2012): *Situación España. Segundo Trimestre 2012*. BBVA. Madril. Hemen: <https://www.bbvaresearch.com/publicaciones/situacion-espana-segundo-trimestre-2012/>

Baxter eta Kouparitsas (2005): "Determinants of business cycle comovement: a robust analysis", *Journal of Monetary Economics* 52 (2005) 113-157

Cardoso-Lecourtois, Méndez-Marcano eta Ruiz-Sánchez (2014): "RVAR: A Multi-Regional Vector Autoregressive Model for Spain" (argitartzeko zain).

Clarida eta Gali (1994): "Sources of real exchange rate fluctuations: How important are nominal shocks?", *NBER Working Paper Series*, 4658 zk.

Dees, Di Mauro, Pesaran eta Smith (2005): "Exploring the international linkages of the euro area: a Global VAR Analysis", *ECB Working paper Series* 568 zk.

Dewachter, Houssa eta Toffano (2010): "Spatial Propagation of Macroeconomic Shocks in Europe", *Katholieke Universiteit Leuven, Discussions Paper Series (DPS)*, 10.12 zk.

Doan, Litterman eta Sims (1984): "Forecasting and Conditional Projection Using Realistic Prior Distributions", *Econometric Reviews*, 3. liburukia, 1 zk., 1-100.

Koop, Pesaran eta Potter (1996): "Impulse response Analysis in Nonlinear Multivariate Models", *Journal of Econometrics*, 74 liburukia, 119-147.

Pesaran eta Shin (1998): "Generalized Impulse Response Analysis in Linear Multivariate Models", *Economic Letters*, 58 liburukia, 17-29.

Pesaran, Schuermann eta Weiner (2004): "Modelling Regional Interdependencies Using a Global Error-Correcting Macroeconomic Model", *Journal of Business and Economic Statistics*, 22 liburukia, 2 zk., 2004)

Ramajo, Marquez eta Hewings (2013): "Does Regional Public Capital Crowd Out Regional Private Capital? A Multiregional Analysis for the Spanish Regions", *Estadística Española*, 55 liburukia, 180 zk.

Vansteenkiste (2007): "Regional Housing Market Spillovers in the US", *ECB Working Paper Series* 708 zk.

4 Autonomia-erkidegoetako finantzak 2013an eta 2003tik 2013ra

Ángel de la Fuente - FEDEA eta Análisi Ekonomikorako Institutua (CSIC.) 2014ko iraila

1. Sarrera

Ohar honetan, eskualdeetako finantzek azken hamarkadan izan duten bilakaera aztertuko dugu; 2013ko ekitaldian arreta berezia jarriz, duela gutxi argitaratu baitira aurrekontua betetzeari buruzko urte horretako datuak. Horretarako, doikuntza batzuk txertatu ditugu autonomia-erkidegoetako diru-sarrerari eta gastuei dagokienez eskura ditugun aurrekontu-datuetan, zenbait sail kontabilizatzeko moduak sortutako distortsioak zuzentzeko.

Honako lan honetan erabili den informazioa autonomia-erkidegoetako aurrekontuen urteko likidazioetatik hartu dugu batik bat, Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioak (MHAP, 2014a) argitaratzen duen dokumentutik, bai eta iturri horrek berak aurrekontuak betearazteari buruz emandako datuetatik ere (MHAP, 2014b). Aurrekontuetako diru-sarrera eta gastuen sortetan, zenbait doikuntza egin dira, berorien garapen profiletan sortutako distortsioak zuzentzeko; izan ere, zenbait sail kontabilizatzeko moduak distortsioak ekarri ditu, eta hor sartzen dira, adibidez, autonomia-erkidegoei egin zaizkien zenbait atxikipen, 2008 eta 2009. urteetako eskualdeen finantziario-sistemako likidazioen saldo negatiboen ordainketa gisa egotzitakoak, eta ekitaldi bakoitzean kontabilizatu gabeko ordaindu gabeko fakturak.³⁷ Bestalde, eskualdeko diru-sarreraren sorta bat ere eraiki da, sortzapen-irizpide bat oinarri hartuta. Aurrekontuetako edo kutxa bidezko diru-sarreraren sortaren eta sortutako diru-sarreraren sortaren arteko aldea zera da: lehenengoan, ekitaldian egiaz jaso diren diru-sarrerak kontabilizatzen dira, hau da, indarreko ekitaldi horretan kontura egin diren sarreraren batura, gehi bertan ordaindutako edo jasotako finantziario-sistemaren likidazioak (normalean, bi urte lehenagokoak izaten dira); bigarrenengoan, aldiz, urteari dagozkion diru-sarrerak hartzen dira kontuan, berorien likidazioa ere barnean hartuta (egiaz beste ekitaldi batean ordaindu arren).

Autonomia-erkidegoek azken hamarkadan izandako gastuen eta diru-sarreraren azterketak adierazten du 2003tik 2009ra autonomia-erkidegoen gastua erruz handitu zela, eta egungo krisia hasi zenean eta diru-sarrerak murrizten hasi zirenean autonomia-erkidegoen finantza-egoerak oso azkar egin zuen okerrera. Azkeneko ekitaldietan, eskualdeetako aurrekontu-saldoren hobekuntza nabarmena gertatu da, gastuak murriztearen eta diru-sarrerak egonkortzearen ondorioz. Murrizketa horren zati handi bat, hala ere, inbertsio-sailetan gertatu da, eta hori kezagarria da neurri batean.

2. Autonomia-erkidegoek orotara eta Nafarroako Foru Erkidegoak (NFE) azken hamarkadan izandako bilakaera


4.1 grafikoko lehenengo panelak autonomia-erkidego guztiek azken hamarkadan jasandako aurrekontuen defizitak izan duen bilakaera erakusten du, kutxa-irizpideekin eta sortzapen-irizpideekin kalkulatuta. Lagin-aldiaren lehenengo urteetan, hedapen ekonomiko luzearen azken zatiari dagozkionetan, autonomia-erkidegoek soberakin arinak erakusten dituzte, batez beste, aurrekontuetan, eta 2006. urtean iritsiko dira punturik gorenera. 2008an, krisia hasi zenean, autonomia-erkidegoetako aurrekontuen saldoek oso azkar egin zuten behera, eta 2009an BPGren % 4,1eko gehieneko defizita izan zen, sortzapen-irizpidearekin kalkulatuta. Krisiaren lehenengo urte horietan gertatutako defizitaren hazkundera askoz ere txikiagoa da kutxako datuekin lan egiten dugunean, autonomia-erkidegoak zerga-bilketaren hondoratzetik bakartzeko erabakia hartu baitzuen Estatuak, eta konturako entregak bilketaren aurreikuspen

37: Xehetasun gehiago jakiteko, ikusi honako oharkizun honen oinarri den laneko dokumentuaren bertsioa: de la Fuente (2014); hemen eskura daiteke <https://www.bbva-research.com/publicaciones/las-finanzas-autonomicas-en-2013-y-entre-2003-y-2013/>

4.1 grafikoa


Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa, BPGren %tan

a. autonomia-erkidegoen multzoa



Iturria: A. de la Fuente

b. Nafarroa



Iturria: A. de la Fuente


errealistak justifikatuko zukeenak baino askoz ere handiagoak izan baitziren. Irizpide horretan oinarrituta, defizit handiena 2011. urteari dagokio, BPGren % 2,8rekin. Urte horretatik aurrera, egoera hobera egiten hasi zen, beheranzko erritmoari eutsi bazitzaion ere. 2012. urtean, autonomia-erkidegoen defizit agregatua BPGren 1,1 puntu murriztu bazen ere (BPGren % 2,8tik % 1,7ra igaro zen), 2013an puntu erdi hobetu zen soilik, defizitaren maila BPGren % 1,2ra iritsi baitzen.

4.1 grafikoaren bigarren panelean ikus daitekeenez, Nafarroako aurrekontuen saldoak, oro har, Estatuko batez bestekoaren antzeko eredia agertzen du kualitatiboki, sorzapen-irizpideekin kalkulaturik, baina krisia hasi aurreko urteetako superabita askoz ere handiagoa zen, eta krisia hasi ondorengo defizita, aldiz, txikiagoa. Nafarroaren kasuan, diru-sarreraren galera ez da arindu Estatuak egindako konturako entregaren ondorioz, ez baitago horrelakorik sistema foralean.

4.2 grafikoa


Gastu eta diru-sarrera ez-finantzarioak biztanleko, 2008ko prezio iraunkorretan, 2003 = 100

a. autonomia-erkidegoen multzoa



Iturria: A. de la Fuente

b. Nafarroa



Iturria: A. de la Fuente

Interesgarria da autonomia-erkidegoetako aurrekontu-saldoen atzean dauden gastuen eta diru-sarreraren bideak zehaztasun handiagoz aztertzea. Hurrengo lerroetan biztanleko diru-sarreraren (kutzakoak) eta gastuen kopuruekin lan egingo dugu; kopuru horiek 2008ko prezio iraunkorretan neurtutakoak izango dira beti, Espainiako BPGren deflatoarea erabiliz. 4.2 grafikoak diru-sarrera eta gastu ez-finantzarioek oro har autonomia-erkidegoetan eta bereziki **Nafarroan** izan duten bilakaera jasotzen du. Lehenengo panelean, ondo berezitateko lau fase dituen jokabide-eredu bat erakusten du grafikoak. 2003tik 2007ra, autonomia-erkidegoen diru-sarrerak eta gastuak oso antzeko eritmoetan haziko dira, eta, horri esker, aurrekontuetan orekari eutsiko zaio. 2007tik 2009ra, gastuek oso gora egingo dute bat-batean, eta,aldi berean, diru-sarrerak beherantz doaz, poliki kutxakoetan, bizkorrago sortzapenen arloan. 2009tik 2011ra, bai diru-sarrerak eta bai gastuak murriztu egingo dira, baina lehenengoak are gehiago murriztuko dira, eta, horren ondorioz, defizitak gora egingo du indar handiz. Azkenik, 2011. urtetik aurrera, diru-sarrerak egonkortzen hasiko dira eta gastuen murrizketari eutsiko zaio; horren ondorioz, defizit agregatuak behera egingo du. Lehenago ikusi dugunez, murrizketa hori handiagoa izan da 2012an 2013an baino, gastuaren bilakaerari esker funtsean, murrizketa handiagoa jasan baitzuen lehenagoko ekitaldian.

Nafarroako kasuak Espainiako batez bestekotik bereizten duten zenbait berezitasun ditu. Aldiaren lehenengo zatian, diru-sarrerak batez bestekoak baino dezente gehiago handituko dira, Espainiakoak baino hamar puntu baino gehiago, hain zuzen; gainera, gastuak baino azkarrago handituko dira, eta, horri esker, foru-erkidegoak superabit nabarmenak agertuko ditu zenbait urtean. Bestalde, 2008. urtean, bai gastuen eta bai diru-sarreraren goranzko prozesua eten egingo da, eta urte horretatik aurrera nahiko paraleloki murriztuko dira; horren ondorioz, defizitaren ibilbidea Espainiako batez bestekoa baino lauagoa izango da, eta azpitik ere kokatuko da, lehen ikusi dugunez.

Hamarkada horretan autonomia-erkidegoetako diru-sarrerak nahiz gastuek izandako aldakuntzak oso handiak dira. 2003tik 2007ra, biztanleko diru-sarrera erreala hogeitun puntutik gora handitu ziren autonomia-erkidegoen multzoan, baina, gero, hasierako mailara itzuli ziren ia, eta 2003an behatutako mailaren azpitik kokatu ziren 2014an, % 1,6 beherago. Modu berean, biztanleko gastu erreala 33 puntu portzentual handitu zen 2003tik 2009ra, eta orduz geroztik 24 puntu murriztu da, hasierako maila baino 9 puntu gorago kokatuz; alegia, biztanleko gastu errealaren maila 2005ean behatutakoaren antzekoa da. Hala, bada,aldi horretan sortutako desoreka (defizitean BPGren % 1,3ko gehikuntza) hasierako mailarekin alderatuta diru-sarrerak izandako galerak azaltzen du neurri batean (% 15ean, gutxi gorabehera) eta, neurri handiagan (% 85ean), gastuaren gehikuntzak. Estatuak eskualdeko finantziario-sistemari egindako ekarpenaren hazkunde handia izan da diru-sarreraren galeraren pisua mugatuagoa izateko arrazoiak, ekarpen hori BPGren puntu bat pasatxo handitu baitzen, 2009an onartutako erreformaren ondorioz.


Nafarroaren kasuan, garai horretan metatutako desoreka Espainiakoaren parekoa izan da ia (BPGren 1,3 puntu), baina, Espainian ez bezala, kasu honetan, desoreka hori diru-sarreraren beherakadaren ondorio izan da guztiz, biztanleko gastu erreala arinki murriztu baita erkidegoan aztertutako aldian.

4.2 grafikoan ikus daitekeen gastu ez-finantzarioa hiru sail handitan bana daiteke: i) aurrekontu publikoetako 6. eta 7. kapituluetan jasotako kapital-gastuak (inbertsio erreala eta kapital-transferentziak), ii) interesen ordainketako gastua (3. kapituluak) eta iii) gastu arrunta (interesetatik garbi), langileen gastuak, ondasun eta zerbitzuen erosketa eta transferentzia arruntak (1., 2. eta 4. kapituluak) barnean hartzen dituenak. 4.3 grafikoko bi panelek sail horien bilakaera jasotzen dute, diru-sarreraren eta gastu agregatuaren moduan arautu ondoren.

4.3 grafikoa


Gastu ez-finantzarioaren osagaiak biztanleko, 2003 = 100, 2008ko prezio iraunkorretan

a. autonomia-erkidegoen multzoa



Iturria: A. de la Fuente

b. Nafarroa




Iturria: A. de la Fuente

Grafikoan ikus daitekeenez, gastu agregatuaren hiru osagaien profilak oso desberdinak dira. Inbertsiorako sailak oso azkar murriztu dira aldiaren bigarren erdian, eta hasierako balioaren erdia baino apur bat gorago gelditu dira azkenean; interesen gastua, berriz, hirukoiztu egin da urte gutxian autonomia-erkidegoen multzoan, zorra oso azkar metatzearen eta arrisku-sariaren igoeraren ondorioz. Bestalde, gastu arruntaren zati handienak osotarako gastuak baino beherakada apalagoa izango du 2009. urtetik aurrera, eta 2013an 2006- 2007ko maileri eutsiko die. **Nafarroak batez bestekoaren antzeko jokaera erakutsi du kualitatiboki, baina inbertsioa Espainiakoa baino arras handiagoa izan da eta lehenago hasi da, eta aldiaren bigarren zatian beherakada Espainiakoa baino handiagoa izan da. Bestalde, interesen sailaren bilakaera batez bestekoa baino positiboagoa izan da hamarkada osoan.**

4.4 grafikoa


Gastu ez-finantzarioaren murrizketaren pisua biztanleko, 2008ko prezioetan

a. 2009tik 2013ra eta



Iturria: A. de la Fuente

b. 2012tik 2013ra



Iturria: A. de la Fuente


4.4 grafikoak gastuaren atalek 2009tik 2013ra eta 2012tik 2013ra kontsolidatze fiskalaren prozesuari egindako ekarpena erakusten du, **bai Nafarroan eta bai autonomia-erkidegoen multzoan**. Interesen sailaren ikur negatiboak adierazten digu hazkunde horrek gastuaren murrizketa bultzatu beharrean, moteldu egin duela. Oso azkar handitu arren, interesek gastuen bilakaeran izan duten eragina mugatua izan da, sail horren hasierako neurria txikia zelako. Grafikoan beste gertaera interesgarri bat beha daiteke: kapital-eragiketen pisu handia. Autonomia-erkidegoen multzoari dagokionez, 2009tik 2013ra gastuan gertatutako murrizketaren erdia gutxi gorabehera inbertsio-sailen murrizketa handiaren ondorio da. Azken ekitaldi osoa aztertzen badugu, kopuru hori kopuru osoaren bi herenera iristen da ia. **Nafarroan, kapital-sailak gastuaren murrizketan duen pisua batez bestekoa baino handiagoa da nabarmenki, bai 2009tik 2013ra eta bai azken urtean ere, ez baita ia hauteman gastu arruntaren (interesetatik garbi) murrizketarik.**

3. Eskualdeko finantzen bilakaera 2013an

2012 eta 2013. urteetan autonomia-erkidegoetako aurrekontu-defizitak konparatzen ditu 4.5 grafikoak, kutxa-irizpideetan oinarrituta³⁸. Agregatuan gertatu bezala, autonomia-erkidego gehienek beren aurrekontu-defizita nabarmen murriztea lortu dute, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Salbuespen bakarrak Aragoi eta Kanariar Uharteak izan dira, berorietan defizita BPGren hiru hamarren inguru hazi baita.

4.5 grafikoa

Aurrekontu-defizita BPGren ehunekotan, 2012 vs. 2013
(Gastu ez-finantzarioak – diru-sarrera ez-finantzarioak)/BPG



Iturria: A. de la Fuente

4.1 koadroan aztertu dira eskualdeetako aurrekontu-saldoen hobekuntzaren berehalako iturriak. [1] zutabeak eskualdeetako aurrekontu-saldoaren 2012ko eta 2013ko aldakuntza erakusten du, eta, kalkulu horietan, aldagai horretako ikur positibo bat defizit txikiagoari dagokio, edo superabit ez-finantzario handiagoari, BPGren ehunekotan neurtuta, betiere. Aurrekontu-saldoaren aldakuntza diru-sarreraren eta gastu ez-finantzarioen arteko aldea da (hurrenez hurren, [2] eta [3] zutabeak). Azkenik, osotarako gastu ez-finantzarioaren aldakuntza, bere hiru osagaien aldakuntzen batura gisa adieraz daiteke: kapital-eragiketak, gastua interesetan eta gainerako gastu arrunta.

Agregatuaren jokaera aztertu da jada aurreko atalean, apur bat desberdina den modu batez neurtutako aldagai batzuekin lan eginez, hala ere. Diru-sarrerei ia berdin eutsi zaienez, 2013ko aurrekontu-saldoaren batez bestekoa izan den hobekuntza gastuaren murrizketari zor zaio eskusiboki, baina aurrezkiaren zatirik

38: Hemen aztergai hartu ditugun aurrekontu-saldoak aurrekontu-kontabilitateko datuekin kalkulatu dira, eta ez datoz bat zehatz-mehatz Estatuko Kontabilitatearen arloan adierazitako datuekin; azken horiek dira, hain zuzen, autonomia-erkidegoen defizit-helburuak ezartzeko balio duten erreferentzia ofizialak. Bi adierazleen arteko korrelazioa handia bada ere (0,86), alde nabarmenak daude eskualde batzuetan. Bi magnitudeen arteko konparazioa egiteko, ikusi Eranskiniko 4. atala: de la Fuente (2014).

handiena kapital-sailetatik dator. Nafarroaren kasuan, diru-sarrerren gainbehera handia nabarmentzen da, lehen ikusi dugunez; baina gastuaren murrizketak konpentsatu du hori argi eta garbi, eta inbertsioetan izandako murrizketak pisu handia izan du hor.

4.1 koadroa

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioaren aldakuntza 2012an eta 2013an, beronen osagaietan xehatua Eskualdeko BPGren ehunekotan

	[1] aurrekontu- saldoaren aldakuntza	[2] diru-sar. aldakuntza	[3] gastuaren aldakuntza	[4] interes aldakuntza	[5] beste gastu arruntaren aldakuntza	[6] kapital- eragiketen aldakuntza
Andaluzia	% 0.60	% 0.12	% -0.48	% 0.14	% 0.30	% -0.92
Aragoi	% -0.30	% 0.11	% 0.41	% 0.13	% -0.09	% 0.38
Asturias	% 0.15	% 0.09	% -0.06	% 0.11	% 0.09	% -0.26
Balearrak	% 1.70	% 0.96	% -0.74	% 0.00	% -0.84	% 0.10
Kanariak	% -0.35	% 0.21	% 0.56	% 0.12	% 0.15	% 0.29
Kantabria	% 0.08	% 0.62	% 0.54	% 0.13	% 0.48	% -0.06
Gaztela eta Leon	% 0.20	% 0.13	% -0.08	% 0.14	% 0.04	% -0.25
Gazt. Mantxa	% 1.11	% -0.44	% -1.54	% 0.23	% -0.38	% -1.39
Katalunia	% 0.28	% -0.15	% -0.43	% 0.01	% -0.43	% -0.01
Valentziako Erk.	% 1.60	% 0.08	% -1.52	% 0.23	% -1.35	% -0.41
Extremadura	% 0.96	% 1.37	% 0.42	% 0.09	% 0.39	% -0.06
Galizia	% 0.23	% 0.20	% -0.04	% 0.08	% 0.11	% -0.23
Madril	% 0.13	% -0.25	% -0.39	% 0.10	% -0.29	% -0.20
Murtzia	% 2.87	% 0.58	% -2.29	% 0.24	% 0.84	% -3.36
Nafarroa	% 0.36	% 0.11	% -0.24	% 0.09	% 0.30	% -0.63
Euskadi	% 0.28	% -0.83	% -1.12	% 0.04	% -0.51	% -0.65
Errioxa	% 0.08	% 0.18	% 0.10	% 0.07	% 0.08	% -0.05
Guztira	% 0.51	% -0.01	% -0.52	% 0.11	% -0.24	% -0.40

Iturria: A. de la Fuente

Hala ere, zenbait erkidegok batez bestekoarekiko oso desberdinak diren jokabide-ereduak erakusten dituzte. Kasurik deigarrienak letra lodiz nabarmendu ditugu 4.1 koadroan. Esate baterako, aurrekontu-saldoaren gainbehera txiki bat erakusten du Aragoik, gastua apur bat igotzearen ondorioz; eta, joera orokorrari aurre eginez, kapital-gastu handiago batean du jatorria berorrek. Kanarietan ere, antzeko zerbait gertatzen da, nahiz eta kasu horretan gastuaren gorakada banatuago dagoen kapital-sailen eta gastu arruntaren artean. Eskalaren bestaldeko muturrean daude, berriz, Balearrak, Valentzia eta Murtzia, beren aurrekontu-saldoak nabarmen hobetu baitira, BPGren 1,5 puntu baino gehiago. Balearretan, hobekuntza bi bidetatik etorri da, neurri berean: diru-sarrerak hobetzetik eta gastu arruntaren murrizketatik (interesetatik garbi). Valentziako Erkidegoan, faktorerik garrantzitsuena gastu arruntaren murrizketatik (interesetatik garbi) etorri da, eta Murtzian, berriz, inbertsioen murrizketatik eta, neurri txikiagoan, diru-sarrerren dinamismotik.

Erreferentziak

de la Fuente, A. (2014). "Las finanzas autonómicas en 2013 y entre 2003 y 2013."

Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa (MHAP, 2014a). *Liquidación de los presupuestos de las comunidades autónomas*. Autonomia-erkidegoko eta tokiko koordinaziorako Idazkaritza Nagusia, Madril.
<http://serviciosweb.meh.es/apps/publicacionliquidacion/asp/menuInicio.aspx>

Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa (MHAP, 2014b). *Consulta de información de ejecución presupuestaria de las comunidades autónomas*. Autonomia-erkidegoko eta tokiko koordinaziorako Idazkaritza Nagusia, Madril.

<https://serviciostelematicos.minhap.gob.es/cimcanet/asp/consulta/consulta.aspx>

5 Taulak

5.1 koadroa

Nafarroako ekonomiaren koiuntura adierazle nagusiak

%	2013		Batazbesteko hazkundera urte haseratik (u/u)		Azken datua (h/h, uez)		Azken hilabetea
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	
Txikizkako salmentak	-2,4%	-3,9%	0,7%	0,3%	-0,4%	0,0%	sep-14
Matrikulazioak	11,7%	4,1%	16,8%	16,8%	13,1%	1,4%	sep-14
ZSJI (IASS)	-4,5%	-2,1%	3,2%	2,1%	-3,0%	0,2%	ago-14
Bidaiari egoiliarak (1)	2,4%	-1,1%	9,0%	4,4%	2,9%	0,0%	sep-14
Egoiliarren ostatu-gauak (1)	0,8%	-1,4%	11,4%	3,5%	3,4%	0,0%	sep-14
IPI	-1,0%	-1,7%	5,9%	1,4%	-4,0%	0,4%	ago-14
Etxebizitza bisatuak	-49,7%	-22,4%	-10,9%	1,5%	1,6%	13,1%	jul-14
Esportazio Errealak (2)	-3,5%	-2,2%	4,0%	-2,5%	-11,4%	-4,5%	ago-14
Inportazioak	2,0%	3,8%	7,0%	1,9%	-7,4%	-0,5%	ago-14
Bidaiari Atzerritarak (3)	-11,3%	-3,0%	7,9%	5,8%	-10,1%	-32,1%	ago-14
Atzerritarren Ostatu-gauak (3)	15,0%	3,3%	8,1%	4,3%	5,3%	-0,2%	sep-14
Afiliazioa SSn	6,4%	3,8%	11,7%	2,6%	5,9%	0,3%	sep-14
Langabezia Erregistratua	-3,1%	-3,1%	0,7%	1,3%	-0,1%	0,2%	sep-14

(1) Espainiako Egoiliarak (2) Ondasun esportazioak (3) Espainiako egoiliarak ez direnak
Iturria: BBVA Research eta Espainiako ministeritzetan (SOIM, EOM eta ITMM) oinarrituta

5.2 koadroa

EDB: aurreikuspen makroekonomikoak (Urteko bariazio-tasak %-tan, kontrakorik adierazi ezean)

	2010	2011	2012	2013	2014
BPG erreala					
Kontsumo pribatua					
Kontsumo publikoa					
Kapital finkoaren eraketa gordina					
Eraikuntza					
Izakinen aldaketa (hazkunderako ekarpena)					
Barne-eskaria (hazkunderari egindako ekarpena)					
Esportazioak					
Inportazioak					
Kanpo-eskaria (hazkunderari egindako ekarpena)					
Pro-memoria					
BPG, etxebizitza arloko inbertsiorik gabe					
BPG, eraikuntza gabe					
Enplegua guztira (BAI/EPA)					
Langabezia-tasa (bizt. akt. %)					
Kontu korrante saldoa (BPGren %)					
Herri-administrazioen saldoa (BPGren %)					
KPI (aldiaren batez bestekoa)					

Aurreikuspenen itxiera-data: 2014ko urriak 30
Iturria: erakunde ofizialak eta BBVA Research

5.3 koadroa

Aurreikuspen makroekonomikoak: Barne Produktu Gordina

(Epealdi amaiera, urteko tasak, %)	2011	2012	2013	2014	2015
Ameriketako Estatu Batuak	1,6	2,3	2,2	2,0	2,5
EDB	1,6	-0,6	-0,4	0,8	1,3
Alemania	3,7	0,6	0,2	1,3	1,4
Frantzia	2,1	0,4	0,4	0,4	1,1
Italia	0,6	-2,4	-1,8	-0,3	0,8
Espainia	-0,6	-2,1	-1,2	1,3	2,0
Erresuma Batua	1,1	0,3	1,7	3,1	2,7
Latinoamerika*	4,1	2,6	2,4	0,9	1,8
Mexiko	4,0	3,7	1,3	2,5	3,5
Brasil	2,7	1,0	2,5	0,2	1,3
EAGLES **	7,0	5,4	5,3	4,9	5,3
Turkia	8,8	2,1	4,1	2,5	3,9
Asia-Ozeano Barea	6,1	5,2	5,2	5,0	5,2
Txina	-0,5	1,5	1,5	1,1	1,3
Asia (Txina gabe)	9,3	7,7	7,7	7,2	7,0
Mundua	3,8	3,5	3,4	3,5	3,9
Ameriketako Estatu Batuak	4,1	3,4	3,2	3,2	3,7

* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexiko, Peru, Venezuela

** Brasil, Txina, India, Indonesia, Mexiko, Errusia, Turkia

Aurreikuspenen itxiera-data: 2014ko urriak 30

Iturria: BBVA Research

5.4 koadroa

Finantza aldagaiak

Interes-tasak 10 urtera (batez bestekoa)	2011	2012	2013	2014	2015
Ameriketako Estatu Batuak	0,25	0,25	0,25	0,25	0,50
EDB	1,10	0,75	0,25	0,05	0,05
Txina	6,56	6,00	6,00	6,00	6,00
Interes-tasak 10 urtera (batez bestekoa)					
Ameriketako Estatu Batuak	2,8	1,8	2,4	2,6	3,1
EDB	2,6	1,5	1,6	1,2	1,0
Ganbio-tasa (batez bestekoa)					
EUR-USD	0,72	0,78	0,75	0,75	0,84
USD-EUR	1,39	1,29	1,33	1,33	1,19
GBP-USD	1,60	1,58	1,56	1,65	1,57
JPY-USD	79,8	79,8	97,6	104,7	115,3
CNY-USD	6,46	6,31	6,20	6,14	6,02

Aurreikuspenen itxiera-data: 2014ko urriak 30

Iturria: BBVA Research eta NDF

LEGE-OHARRA

BBVA Research-eko sailak egindako dokumentu honek dibulgazio-izaera du, eta egindako datari dagozkion datuak, iritziak eta estimazioak ditu, bertan landutakoak edo fidagarri irizten diegun iturrietatik datozenak edota berorietan oinarrituta egin direnak; hala ere, BBVAk ez ditu bere kabuz egiaztatu beroriek. Hortaz, berorien zehaztasunari, osotasunari edo zuzentasunari buruzko bermerik ez du ematen BBVAk, ez berariaz eta ez modu inplizituan.

Dokumentu honetan izan daitezkeen estimazioak oro har onartuta dauden metodologiak erabiliz landu dira, eta halakotzat hartu behar dira, hau da, aurreikuspen edo proiektiotzat. Aldagai ekonomikoen bilakaera historikoak (positiboa edo negatiboa) ez du bermatzen etorkizunean bilakaera baliokidea izango dutenik.

Dokumentu honen edukia aldaketak izan ditzake, aurretiazko abisurik gabe, adibidez, testuinguru ekonomikoaren arabera edota merkatuaren gorabeheren arabera. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen ez dokumentua eguneratzeko eta ez aldaketa horien berri emateko ere.

BBVAk ez du beregain inolako erantzukizunik dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzearen ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen inolako galeraren aurrean.

Ez dokumentu hau eta ez jasotzen duen edukia ere ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, aktibo edo tresna finantzarioak erosteko, inbertsioak desegiteko edo interesak lortzeko, eta ezin dute izan inolako kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri.

Dokumentu honek gara ditzakeen aldagai ekonomikoekin lotuta egon daitezkeen aktibo finantzarioetan egin daitezkeen inbertsioei dagokienez, irakurleek argi eta garbi izan behar dute ezin dutela dokumentu hau beren inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko oinarritzat hartu, eta inbertsio-produktuen eskaintzak egin diezazkieketen pertsonak edo erakundeak legez behartuta daude horrelako erabaki bat hartzeko beharrezkoa duten informazio guztia ematera.

Honako dokumentu honen edukia jabetza intelektualari buruzko legediak babesten du. Berariaz debekatuta dago berau erreproduzitzea, aldatzea, banatzea, publikoki zabaltzea, eskuragarri jartzea, zatiak ateratzea, berriro erabiltzea edo bidaltzea edo beste edozein helburutarako erabiltzea, edozein bitarteko edo prozedura medio, legez baimendutako kasuetan salbu eta BBVAk berariaz emandako baimena dutenean salbu.

Txosten hau Espainia eta Europako Unitateak prestatu du:

Ekonomia Garatuetarako ekonomialari burua

Rafael Doménech
r.domenech@bbva.com
+34 91 537 36 72

Espainia

Miguel Cardoso
miguel.cardoso@bbva.com
+34 91 374 39 61

Juan Ramón García
juanramon.gl@bbva.com
+34 91 374 33 39

Myriam Montañez
+34 954 24 74 86
miriam.montanez@bbva.com

Amanda Tabanera
amanda.tabarena@bbva.com
+34 91 807 51 44

Anabel Arador
ana.arador@grupobbva.com
+ 34 93 401 40 42

Laura González
laura.gonzalez.trapaga@bbva.com
+34 91 807 51 44

Virginia Pou
virginia.pou@bbva.com
+34 91 537 77 23

Camilo Andrés Ulloa
camiloandres.ulloa@bbva.com
+34 91 537 84 73

Joseba Barandiaran
joseba.barandia@bbva.com
+34 94 487 67 39

Félix Lores
felix.lores@bbva.com
+34 91 374 01 82

Juan Ruiz
juan.ruiz2@bbva.com
+34 646 825 405

Mónica Correa
monica.correa@bbva.com
+34 91 374 64 01

Antonio Marín
antonio.marin.campos@bbva.com
+34 648 600 596

Pep Ruiz
ruiz.aguirre@bbva.com
+34 91 537 55 67

BBVA Research

Taldeko Ekonomialari Burua

Jorge Sicilia Serrano

Garatutako Ekonomiak

Rafael Doménech Vilariño
r.domenech@bbva.com

Espainia

Miguel Cardoso Lecourtois
miguel.cardoso@bbva.com

Europa

Miguel Jiménez González-Anleo
mjimenezg@bbva.com

Estatu Batuak

Nathaniel Karp
Nathaniel.Karp@bbva.com

Garatze bidean diren Ekonomiak

Alicia García-Herrero
alicia.garcia-herrero@bbva.com

Garatze bidean diren Ekonomien

Zeharkako Análisis
Álvaro Ortiz Vidal-Abarca
alvaro.ortiz@bbva.com

Asia

Le Xia
le.xia@bbva.com

Mexiko

Carlos Serrano Herrera
carlos.serranoh@bbva.com

Latam koordinazioa

Juan Manuel Ruiz Pérez
juan.ruiz@bbva.com

Argentina

Gloria Sorensen
gsorensen@bbva.com

Txile

Jorge Selaive Carrasco
jselaive@bbva.com

Kolonbia

Juana Téllez Corredor
juana.tellez@bbva.com

Peru

Hugo Perea Flores
hperea@bbva.com

Venezuela

Oswaldo López Meza
oswaldo.lopez@bbva.com

Finantza Sistemak eta Araudia

Santiago Fernández de Lis
sfernandezdelis@bbva.com

Finantza Sistemak

Ana Rubio
arubiog@bbva.com

Finantza Barneraketa

David Tuesta
david.tuesta@bbva.com

Araudia eta Politika Publikoak

María Abascal
maria.abascal@bbva.com

Política de Recuperación y Resolución

José Carlos Pardo
josecarlos.pardo@bbva.com

Erregulazio Koordinaketa Globala

Matías Viola
matias.viola@bbva.com

Arlo Globalak

Inguru Ekonomikoak

Julián Cubero Calvo
juan.cubero@bbva.com

Finantza Inguruak

Sonsoles Castillo Delgado
s.castillo@bbva.com

Berrikuntza eta Prozesuak

Oscar de las Peñas Sánchez-Caro
oscar.delaspenas@bbva.com

Interesdunak, helbide honetara zuzendu:

BBVA Research

Paseo Castellana, 81 - 7ª planta
28046 Madrid (España)
Tel.: +34 91 374 60 00 y +34 91 537 70 00
Fax: +34 91 374 30 25
bbvaresearch@bbva.com
www.bbvaresearch.com